

# Aiaraldea *jaietan*

2019

www.airaldea.eus

FAKTORIA

# Udalekuak 2019

## MUGIMENDU ASKEA ETA NATURA
UDALEKU IREKIAK

*Mugimendu librea, autonomia, parte hartzea, sormena, esperimentazioa, hezkidetza eta euskara izango dira gure oinarriak.*

*Gorputz adierazpenerako gunea, sukalde gunea, arte eszenikoen gunea, ortu gunea, erlajazio gunea, esperimentazio gunea.*



**ORDUTEGIA**
10:00- 13:00

**TOKIA**
Laudion, berdegune zoragarri batean

**DATAK**
2019ko irailaren 2tik 7ra

**ADINAK**
4 urtetik (2015ean jaiotakoak) 13 urtetara (2006ean jaiotakoak)

**PREZIOAK**
BAZKIDEAK(*): 55€
EZ-BAZKIDEAK: 65€

## GAZTE(Z) B(L)AI
UDALEKU ITXIA ZUHATZAN

## PARTE HARTZE EGONALDIA
TERTANGAN

## IZEN EMATEA

**Bulegoan:** Aiaraldea Ekintzen Faktoriaren bulegoan (Nerbioi kalea 12, LAUDIO)
**Telefonoz:** 693 855312 (9:00-13:30 / 17:00- 20:00)
**Emailez:** Hezkuntza@aiaraldea.eus
**Internet bidez:** ww.labur.eus/ faktoriaudalekuak2019

KOKORIKO

FAKTORIA

# ABUZTUA

**08**
Luiaondoko Santo Domingo (9.or)
Okondoko San Roman (18.or)

**09**
Okondoko San Roman jaiak (19.or)
Urduñako Orruñoko jaiak (26.or)

**10**
Luiaondoko San Lorentzo jaia (9.or)
Amurrioko jaiak (38.or)

**11-13**
Amurrioko jaiak (38-39.or)

**14**
Urduñako Kalebarriako jaiak (24.or)
Arrankudiagako jaiak (32.or)
Amurrioko jaiak (45.or)
Laudioko jaiak (58.or)
Ibarrako jaiak (92. or)

**15**
Amurrioko jaiak (46.or)
Luxoko jaiak (11.or)
Urduñako Kalebarriako jaiak (24.or)
Arrankudiagako jaiak (33.or)
Laudioko jaiak (58.or)
Ibarrako jaiak Orozkon (92.or)

**16**
Ibarrako jaiak Orozkon (92.or)
Urduñako Kalebarriako jaiak (25.or)
Arrankudiagako jaiak (33.or)
Amurrioko jaiak (47.or)
Laudioko jaiak (62-63.or)

**17**
Arrankudiagako jaiak (33.or)
Laudioko jaiak (66-67.or)

**18**
Arrankudiagako jaiak (33.or)

**19**
Arrankudiagako jaiak (33.or)

**21**
Laudioko jaiak (70.or)

**22**
Okondoko jaiak (19.or)
Laudioko jaiak (72.or)

**23**
Okondoko jaiak (19.or)
Laudioko jaiak (74-75.or)

**24**
Okondoko jaiak (20.or)
Larrabeko jaiak (52.or)
Laudioko jaiak (79-80.or)

**25**
Okondoko jaiak (20.or)
Laudioko jaiak (82.or)

**29**
Aloriako jaiak (52.or)

**30**
Aloriako jaiak (52.or)
Orozkoko jaiak (88-89.or)
Artziniegako jaiak (95.or)

**31**
Artziniegako jaiak (96-97.or)
Urduñako Koroatze jaiak (26.or)
Orozkoko jaiak (89-90.or)

# IRAILA

**1**
Urduñako Koroatze jaiak (26.or)
Orozkoko jaiak (89.or)

**2-4**
Orozkoko jaiak (89-90.or)

**6**
Baranbioko jaiak (54.or)
Artziniegako jaiak (96-97.or)

**7**
Artziniegako jaiak (96-97.or)
Etxaurrengo jaiak (11.or)
Kobatako San Bitores jaia (11.or)
Baranbioko jaiak (54.or)

**8**
Artziniegako jaiak (96-97.or)
Etxaurrengo jaiak (11.or)
Urduñako Koroatze jaiak (26.or)
Baranbioko jaiak (54.or)

**10**
Baranbioko jaiak (54.or)

**13**
Latiorroko jaiak (84.or)

**14-15**
Latiorroko jaiak (84.or)
Atxetako jaiak (34.or)

**22**
Goikiriko jaiak (92.or)

**26-27**
Menagaraiko jaiak (14.or)

**28**
Mikel Deunako jaiak (28.or)
Menagaraiko jaiak (14.or)
Lekamañako jaiak (54. or)

**29**
Lekamañako jaiak (54. or)
Opellorako jaiak (11.or)
Menagaraiko jaiak (14.or)

# URRIA

**5-7**
Belandiako jaiak (28.or)

# Egiten duguna gara



Batzen gaituen lurra, batzen gaituzten jaiak" izenburupean estreinatu genuen duela sei urte esku artean duzun "Aiaraldea Jaietan" udako aldizkari hau. Eta euria egin du gogotik ordutik hona; euria, kaskabarra, elurra, eguzki betea, euria, kaskabarra... eta berriz hasi. Eta denbora ez da debalde pasa, ez. Aiaraldearen izenpean ezagun dugun proiektua hazi egin da, asko gainera, eta nerabe koxkor bat zen hura proiektu berrien ama eta alaba berri askoren amama ere bihurtzea lortu dugu ibiliaren ibiliz, ekinaren ekinez. Harro egoteko moduan egin du aurrera proiektu herrikoi honek, eta lerro hauek irakurtzen ari zareten zuotako askori esker izan da.

Aurki izango dira **10 urte** Artziniegatik Orozkora eta Urduñatik Zollora luzatzen den lurraldean zoro zoragarri batzuk amets egitea erabaki zutenetik; ezerezetik euskara arnas izango zuen komunikazio proiektu herritar bat abiarazi zutenetik. "Berde gaude" genioen orduko hartan, urduritasunek jota "komunikazio leiho" hura Amurrioko plazatik mundu zabalera irekitzear geundenean... Interneta, euskara, bideoak, gazteak, ilusioa, irrika, auzolana, anbizioa... Eta hara! Aiaraldeak bere bidea egin du, zigi-zaga, tikirri-takarra, inguru-minguru... euskara altzoan eta ahoan, errealitate egonkor bat bihurtu dira euskarazko hedabideak gure eskualdean.

Egiten duguna gara. Guk, euskara egiten dugu, eta modu berean euskarak egiten gaitu gu. Euskarak egiten gaitu Aiaraldea.

Boluntarioz armatutako elkarte hura Kooperatiba sendo batean bihurtu da urteon poderioz, jende askoren lan eskuzabalari esker bihurtu ere. **Aiaraldea Ekintzen Faktoria** izena duen proiektu berritu hau, zeruertz berriak urratzeko gertu dago; komunikazio eta komunikabideen esparrutik harago egin, eta gure hizkuntza mundu berri baterako ate bihurtu nahi du orain. "Dabillan harriari, etçaica goroldioric lotcen" idatzi zuen behinola Sarako seme Axularrek, eta ez, ez zaigu goroldiorik batuko, bidean ari garen bitartean. Eta ari gara, ari garenez gero.

Euskarak ekarriko du gurera eraldaketa soziala; gure alabak hesi artean hezi baino hazi araziko dituena, gure lurraldearen eta **elikaduraren burujabetza** sustatuko dituena, **jendarte feminista** josi eta hedatuko duena, pertsona libreagoak elikatzeko **kultura herritarra**, anitza, aberatsa eta parte hartzailea indartuko duena, **ekonomia pertsonen zerbitzura** jarriko duena, **etxebizitza eredu berriak** etxe-orratzak lez harriz-harri eraikiko dituena, **enpresa kooperatibo eta komunitarioak** erein eta zainduko dituena...

Aiaraldea Ekintzen Faktoria burubelarri ari da bide horiek guztiak goldatzen, euskaratik eta euskaraz egin ere. Egiten duguna garelako, eta gure hizkuntza ere egiten dugun hori izango delako.

Aurki 10 urte beteko ditugu bidean, eta orduko hartan berde zegoen landare hura loratu egin da, eta fruitu eder eta berri bat ekarriko dio gure lurraldeari. Urteurren borobilarekin batera irekiko baititu bere ateak **Faktoriak**, bagarela nor sinetsita, mundu berri bat oparitzeko gure hizkuntzari, hark gure ondorengoentzako arnas nahikoa izan dezan.

Egiten duguna gara.

Voltairek zioen euskaldunok Pirinioetako bi aldeetara kanta eta dantza egiten duen herria ginela.

Eta bai, kanta eta dantza egiteko suziriak piztu dira dagoeneko eskualde luze-zabalean, eta irri egingo dugu, dantza egingo dugu, lagunak eta lagun ez direnak ere besarkatu eta musukatuko ditugu, maitasuna jaso, eman eta egingo dugu, egunerokotasunaren zirimolatik atera eta bizipozez harago begiratzeko beta hartuko dugu, batzen gaituzten lurretan, batzen gaituzten jaietan.

Kanta eta dantza egin dezagun beraz, bagarela nor harro aldarrikatuz, eta egiten dugun hori garela gogoratuz.

Egiten duguna gara, euskara gara. Aiaraldea Ekintzen Faktoria gara.

# AIARAKO herrietako jaiak

ABUZTUA / IRAILA





**GENTZA ALAMILLO UDAETA**
AIARAKO ALKATEA

Elkarrekin arituaz auzokideak auzo-lagun bihurtzen direnean; auzolana, festa giroaz janzten dugunean; festa zaletasuna errespetu osoz, jai erraldoi bilakatzen denean.

Momentu horiek guztiak urtean behin baino ez ditugu, sortu, bizi eta gozatzeko aukerarekin. Urtean behin, gure herri txikiek, euren usadio eta euren txoko maiteak bertaratzen diren guztiekin -txiki, handi, bertoko, atzerritar edo despistatutako bat edo besterekin- partekatu eta une gogoangarri bihurtzen dituzte, AIARAKO JAIEN hazia ereinda. Tradizioari eutsiz, belaunaldi berriei lekukoa utzita, talde lanari merezi duen garrantzia eskainita horrelaxe egin dituzte handi gure auzokideek euren jaiak eta, horrenbestez, euren herriak. Eta guk ere, Aiarako Udala osatzen dugun emakume eta gizonok, euren ahalegina eskertu bakarrik ez, aintzatetsi ere egin gura dugu eta betetzen duten papera lau haizetara aldarrikatu: zuek egiten dituzue jai herrikoiak handi, zuena da lana eta zuena saria eta guk, bertaratzen garen pertsonok, eskerrak ematen dizkizuegu. Izan ere, zuek zarete gure jaien euskarria eta etorkizunera begirako bermea.

*Gora Aiarako Jaiak eta euren antolatzaileak!*

Aiarako Udala
Ayuntamiento de Ayala

ELKARRIZKETA

# ZALOA GONZALEZ VEIGA




ZALOA GONZALEZ VEIGA (LUIAONDO, 2001) LUIAONDOKO JAIETAKO AURTENGO DAMA IZATEKO HAUTATU DUTE. FESTEN ETA HERRIKO EGOERAREN INGURUAN MINTZATU DA.

## *“Luiaondoko jaiak geroz eta hobeak izango direla eta ospea hartuko dutelakoan nago”*

**Luiaondoko jaietako dama izatea egokitu zaizu. Pozik?**

Dama aukeratzeko bozketara joan nintzen, baina herriko beste pertsona bat hautatu zen. Kide horrek dama izan nahi ez zuenez, niri egokitu zitzaidan izatea. Ilusio handia egin dit.

**Azken urteetako Damarik gazteena zara. Presiorik eragin dizu horrek?**

Ez, ilusioa egiten dit, beti izan bainaiz herrikoa. Jaietan parte hartzean eta gozatzean datza damaren jardunak. Luiaondoko Madalena jaietako txupinazo egunean pregoi moduko bat irakurri eta suziria piztu behar duzu eta, gero, jaietan (Santo Domingo eta San Lorentzokoetan ere) dauden ekintza eta sari banaketetan egon behar zara.

**Luiaondoko jaiak azken urteetan gaztetu direla aipatzen dute antolatzaileek. Hala ikusten duzu zuk?**

Bai. Iaz lehen urtez, gazteei begirako jaia antolatu zen.Luiaondoko jaiek Arrigorriagakoekin kointziditzen dute, eta herrian zer edo zer jartzen ez bazuten, gazteok bertara joango ginake.

Orduan iaz DJ Markelin jarri zuten eta jende pila etorri zen. Aurten, aldiz, bi egun potente egon dira eta jende asko etorri da. Umeentzako ere ekintza pilo daude. Gazteok haurrentzako tailerrak antolatuko ditugu Santo Domingo eta San Lorentzo egunetan.

Bi egun horiek askoz herrikoiagoak dira, baina aurten BocaBeats Comedia ikuskizuna ekarriko dute, nahiko famatua dena. Nik uste dut Luiaondoko jaiak geroz eta hobeak izango direla eta fama hartuko dutela.

**Zer motako jokoak izango dira antolatuko dituzuenak?**

Oraindik ez dugu guztiz pentsatu, baina altxorraren bila jolasa eta aurpegi margotzea egingo ditugu, besteak beste.

**Badago jende gaztea Jai Batzordean?**

Ez, baina ni eta nire lagunak bileretara gerturatu gara ideiak ematera.

**Luiaondoko “lo-herri” bat dela esan ohi da askotan. Hala ikusten duzu zuk?**

Bai. Madalenako jaietan egiten den odoloste-janean, adibi-

dez, jende asko gerturatzen da baina gero betiko laurak geratzen gara plazan. Baina iaz jende andana bertaratu zen eta goizeko zazpietara arte luzatu zen jaia plazan.

**Zer esango zenieke eskualdeko gainontzeko herrietako pertsonei Luiaondoko jaietara gerturatu daitezen?**
Uste dut Luiaondoko jendeari ilusio asko egiten diola herrian horrenbeste pertsona ikusteak. Nire aita herrikoa izan da betidanik eta iaz aipatu zuen ez zuela inoiz horrenbeste jende ikusi.

**Belaunaldi aldaketa bermatua dago, beraz?**
Baietz esango nuke. Baina herrian gure kuadrilla dago eta gero etenaldia. Nire ahizparen adinekoak asko dira, baina

*“Gure belaunaldiak jarraituko du jaiak antolatzen”*

Amurriora eta inguruko herrietara joaten dira, bertan dituztelako lagunak. Horregatik, uste dut gure belaunaldia izango dela jaiak antolatzen jarraituko duena.

---

KOMIKIA

# *Gora herri txikietako jaiak!*

## Jabi Isasi



# Naturarekin bat ospatuko dituzte Luiaondoko jaiak










## 08.08
## OSTEGUNA

SANTO DOMINGO

**10:00 Kalejira**
Luiaondoko txistulariekin

**12:00 Meza**
Santo Domingoren omenez



**12:30 Umeentzako jolasak eta apar festa**



**14:30 Bazkari herrikoia**
Ermitako zelaian

**17:00 Briska txapelketa**

**17:00 "Got talent"**

**21:00 Herri odoloste jana**

**22:00 Erromeria Ganekorekin**



**22:30 Ikuskizuna BOCABEATS COMEDIA**



## 08.09
## OSTIRALA

**20:30 Txorizo jana eta DJ ZABALen emanaldia**
Oleta jatetxean

## 08.10
## LARUNBATA

SAN LORENTZO

**11:00 Tortila eta pintxo lehiaketa**

**12:00 Meza**

**12:30 Umeentzako jokoak**

**13:30 Tortila eta pintxoen aurkezpena**



**14:30 Bazkari herrikoia**

**16:30 Tute txapelketa**

**17:00 Ur txirrista**

**21:30 Urdaila dastatzea**

**22:00 Erromeria GANEKO**

ROAN
ALUMINIOZKO LEIHOAK
AROTZERIA METALIKOA
PERTSIANAK
BEIRAK JARTZEA
Maskuribai industrialdea 18 - Amurrio ARABA
T. 945 034 043 M. 645 708 717

ETXEBAKARRA EDO BI FAMILIARENTZAKO ETXEA ERAIKITZEKO LURSAILEN SALMENTA ZUAZAN
Etxebizitza proiektua kudeatzeko aukera, ohiko eraikuntza edo passivhaus bidez, obra amaitzeko aukera barne.

INFORMATU KONPROMISO GABE
669 303 407 / 945 891 642

# Abuztuaren 30 eta 31n ospatuko dira Soxoko jaiak



Abuztua giro paregabean agurtzeko aukera egongo da Soxoko jaietan. Hilaren 30 eta 31n (ostirala eta larunbata) ospatuko dira festak. Antolatzaileek ez dute oraindik egitaraua plazaratu, baina ekintza ugari egongo direla aurreratu dute. Ohiko eskema jarraituko du programak, hainbat jarduerarekin: dantzak, mendi ibilaldia, haurrentzako ekintzak eta kontzertuak, besteak beste.









Josu Zaldibar

## LUXOKO JAIAK

## 08.15
## OSTEGUNA

**13:00 Meza eta, ostean, luntxa**



## KOBATA-SAN BITORESEKO JAIAK

## 09.07
## LARUNBATA

**12:00 Meza Santua**
Eskutxiko ahotsak taldearen emanaldia egongo da

**13:00 Artzain txakurren erakustaldia**

**14:00 Gizonezko artzain bati eta emakumezko artzainei omenaldia**

**15:00 Herri bazkaria**
Rakatapla elkartearen laguntzarekin

**16:30 Igel-toka txapelketa**
Heldu zein umeentzat

**18:30 Sokatira**
Artzainak gainontzekoen aurka. Umeentzako sokatira ere egongo da

**Txapel jaurtiketa**
Heldu zein umeentzat

**Dantzaldia**
Iñaki Otegirekin

**Txokolate jana eta jai bukaera**



## ETXAURRENGO JAIAK

## 09.07
## LARUNBATA

**17:00 Meza tradizionala**

## 09.08
## IGANDEA

**11:00 Girotzea trikitiekin**

**12:00 Meza nagusia**
Ondoren birjinaren prozesioa egongo da Aiarako lau administrazio batzarretako presidenteen eskutik

**13:00 Aiara Dantza Taldearen emanaldia**
Jarraian, tarta tradizionalak zozketatuko dira



**14:00 Meza baselizan**

**14:30 Bazkari herrikoia**
Izoriako Arangutxi elkarteko kideen eskutik



**16:00 Keramika tailerra eta haurrentzako birziklapen jolasak**

**16:30 Falkoneria erakustaldia**

**16:30 Igel-toka eta briska arin txapelketak**

**18:00 Arrosarioa**

**20:00 Arkume baten zozketa**

## OPELLORAKO JAIAK

## 09.29
## IGANDEA

**13:00 Meza**
San Migelen ohorez

**13:00 Luntxa, zozketa, trikitia eta puzgarriak**



# “Soxoko konkistatzailea” nor izango ote da? Erantzuna jaietan




Aurreko urteetan bezala, Konkisoxo izeneko norgehiagoka egingo dute Soxoko jaietan. ***El conquistador del fin del mundo*** reality show ospetsuan oinarritutako jokoa izango da. Parte hartzaileek hainbat proba dibertigarri burutu beharko dituzte, euren arteko elkarlana baliatuta.



















**Argazkiak: Josu Zaldibar eta Aimar Gutierrez**

# Beotegiko San Miguel elizaren mendeurrena ospatuko dute jaietan

Bereziak izango dira aurten Menagarai eta Beotegiko jaiak, azken herri horretako elizak 100 urte betetzen baititu aurten. 1919. urtean eraiki zen Beotegiko San Migel eliza. 30.000 pezetako aurrekontua baliatu zuten eraikina egiteko eta herrian zegoen ermita bateko materialak probestu zituzten horretarako. Inés eta Luisa de Alday Urquiza ahizpek jarri zuten diru hori, euren gurasoen omenez eraiki nahi baitzuten monumentu erlijiosoa.

Hala azaldu du Andoni Zurimendu Ortizek elizari buruz plazaratu duen liburuxkan. Bizilagunen artean banatuko dute lan hori, herriko ondarearen ezagutza sustatzeko asmoz. Elizaren nondik norakoak soilik ez, herriaren bilakaera historikoa ere hizpide du ikerketak. Hainbat datu historiko bildu ditu Zurimendi Ortizek lanean, herriko biztanleriaren bilakaera kasu. 1786. urtean izan zituen Beotegik biztanle gehien: 81. Gaur egun 58 bizilagun daude herrian, iazko erroldaren arabera.



## 09.26 OSTEGUNA

MENAGARAI

**19:30 Jaien hasiera**
Kanpai jotzea, suziriak piztea eta txorizo dastatzea

**20:00 Txokolate jana**

**21:00 Su artifizialak**

## 09.27 OSTIRALA

MARTIRIEN EGUNA MENAGARAIN

**12:00 Meza Santua**

**13:00 Luntxa eta zozketa herrikoia**

## 09.28 LARUNBATA

**17:00 Umeen bolo txapelketa**

**18:00 Tokiko bolo txapelketa**

**19:00 Aiara Dantza Taldea**

**20:00 Parrillada**
Txorizoa, solomoa eta urdaila

**20:30 Berbena: DJ ZABAL**

**22:00 Areto dantzak eta zozketa**

**23:30 Txokolate jana**



## 09.29 IGANDEA

SAN MIGEL (BEOTEGI)

**13:00 Meza Santua**

**13:30 Tradiziozko tartaren zozketa**

**14:30 Paella jan herrikoia**
Parte hartzeko 672733762 telefono zenbakira deitu behar da irailaren 26a baino lehen



**17:00 Bolo txapelketaren amaiera**
Musika eta dantzaldia egongo dira jaiari amaiera emateko

# OKONDOKO jaiak

ABUZTUAK 8-25




*Etorri, gozatu eta dibertitu zaitez*

Okondoko Udala



**JON ESCUZA DEL CAMPO**
OKONDOKO ALKATEA

Gure jaiak hastear daude. Abuztuan, herria alaitasunez betetzen da, lehenengo, San Romango jaiekin, eta ondoren, San Bartolomekoekin.

Denontzako tokia egin eta gustu zein adin guztietarako hamaika ekitaldi gastronomiko, ludiko eta kultural antolatu ditugu, hori baita Jai Batzordeak eta Udalak festetarako egiten duten esfortzuaren helburu nagusia.

Aurten, bereziki, abuztua ekitaldiz beteta izango dugu, San Romango jaiak pasa ondoren eta San Bartolomekoak hasi baino lehen Agility txakur txapelketa izango baitugu herrian.

Horregatik animatu nahi ditut herritarrak eta gure herrira etortzen diren guztiak arazoak alde batera uztera eta disfrutatzera. Egun polit batzuk pasa ditzagun; jaiak, errespetuz, tolerantziaz eta berdintasunez beteak izan daitezela nahiko nuke.

Abuztuan jaietan jai, lagunekin eta familiarekin gozatzeko prest, betiere egun hauetan gurekin egon ezin direnak oroimenean izanda.

Festazaleak eta ondo pasatzeko gogoa duten pertsona guztiak ongi etorriak dira.

Ondo pasa jaietan!

Gora Okondo eta okondoarrak!

# FELIPE LARRAZABAL



FELIPE LARRAZABAL (1971, OKONDO) IZANGO DA AURTENGO OKONDOKO FESTEN PREGOILARIA. MODU HORRETAN AITORTU DIOTE GAUR ARTE EGINDAKO KIROL IBILBIDEA. MUNDUAN ZEIN EUROPAN 12 URTEZ MENDI TRAILEAN LEHIATU DA EUSKADIKO SELEKZIOAREKIN.

## *"Beti hartu dut parte jaietan, baina aurtengo festak bereziak izango dira niretzat"*

**Jaietako mezua eta txupina lau haizetara zabaltzeko aukeratu zaituzte. Pozik?**

Bai. Udaletik deitu ninduten pregoilari izatea proposatzeko. Niretzat ezusteko handia izan zen, sorpresa itzela. Suposatzen duen erantzukizuna pentsatu gabe esan nuen baietz, eta tira... Azkenean baiezkoa ematea erabaki dut, ea zelan doan!

**Aurtengo jaiak bereziak izango dira zuretzat orduan.**

Bai. Betidanik izan naiz Okondokoa, eta beti hartu dut parte festetan. Pentsatzen dut ez dudala sekula ere hutsik egin, egunen batean akaso (beste herri batzuetara joan izan naiz), baina nagusiki hemen pasatzen ditut jai guztiak. Herrian geratzeko ohitura dut, egia esan.

**Zure kirol ibilbideari aitortza egiteko modua izan da izendapena. Nola laburtuko zenuke zure karrera?**
Bizitza osoa daramat kirola praktikatzen. Afizionatu mailara iritsi nintzen txirrindularitzan, gero utzi egin nuen arren. Hain zuzen, mendi martxengatik ordezkatu nuen, eta 20 urte baino gehiago daramatzat horretan. Horrez gain, Spartan modalitatean ere aritzen naiz, oztopo lasterketetan. Eta, txakurkrossean. Dena den, mendiaren alorrean nabarmendu naiz gehien. 12 urtez ibili naiz Euskal selekzioarekin trailean.

**Mendiak igo zaitu arrakastaren gailurrera, beraz. Mundu mailan ere lehiatu zara, ezta?**
Bai, Europako txapelketetan zein mundukoetan. Txakurkrossean duela 5-6 urte hasi nintzen, eta Espainiako txapelketan lehen postua eskuratu nuen lur eta elur kategorietan. Euskadiko txapelketa eta zenbait herri lasterketa ere irabazi ditut.

**Bizikleta noiz eta zergatik utzi zenuen ba?**
Gaztea nintzen, eta sakrifizio gehiegi eskatzen zuen. Parrandan ateratzen hasi nintzenean utzi nuen. Teorian, kirol oro praktikatzeari utzi nion 18 urterekin. Soldaduska ez egiteagatik Gurutze Gorriko boluntario izatea erabaki nuen, eta horrek denbora dezente lapurtu zidan. Ezer gutxi egitetik mendian ibiltzera pasa nintzen.

**Gerora, zergatik aukeratu zenuen mendia?**
27 urterekin Galarleiz mendi maratoia egitea erabaki nuen. Hor hasi nintzen korrika. Handik urtebetera deitu ninduten Euskadiko selekziorako, eta 12 urte eman nituen lehiatzen federazioarekin.

**Euskadiko selekzioarekin 12 urtez aritu zara. Ez da marka makala.**
Jende askorekin kointziditu dut 12 urtetan, egia esan. Batzuk 2 urte irauten zuten, besteek 4... Taldea beti 6-9 lasterkari artekoa zen. Espainiako Kopetan hasi ginen, eta entrenamenduen ondorioz eta ahalegin handia eginda, Munduko Kopetarako aukeratu gintuzten.

**Mundu mailan ere lehiatu zara, orduan...**
Bai, 4-5 aldiz. Hainbeste tokitan egonda, ez dakit esaten jada! Italian, Suedian, Eskozian, Mexikon egon gara. Lana eta nire bizitza uztartu izan ditut mundu mailan trailean lehiatu ahal izateko. Oso esperientzia polita izan da, talde eta giro ona genuen. Lehen, lehiakorrak baino lagunagoak ginen, horietako askorekin harremana mantentzen dut oraindik. Egun, marka hobetzeko borrokatzea da kirola, lehiakortasunari garrantzia gehiago ematen zaio.

**Zure ustez, mendian korrika egiteko zer behar da?**
Nik daktilekin egiten dut Zegama-Aizkorri maratoia. Jendeak saltzen dioten guztia hartzen du, baina ez da beharrezkoa. Prestatua joatea garrantzitsua da, baina neurrian.

**Egin dituzun proba guztietatik, zein ez duzu ahaztuko?**
Ez ditut asko irabazi, baina ilusio gehien egin zidana Zallako Galarleizekoa izan zen; karrera horrekin hasi nintzelako korrika. 2013an izan zen hori, 44 urterekin. Zegama-Aizkorri ere itzela da, 17 ediziotatik 15 egin ditut nik. Beti izan da izugarria, baina orain zoramena da. Bilboko Spartansean ere sorpresa handia eraman nuen: hirugarren bukatu nuen.

**Txakurkrossean zabiltza gaur egun...**
Bai. Neguan izaten da hori, tenperaturagatik. Animalien ongizaterako moldatzen dituzte probak, tratu txarrik ez jasateko. Adibidez, probaren hasieran albaitariek txakurrei azterketa egiten diete, eta txerto guztiak jarrita dituzten begiratzen dute. Horrez gain, arnesak, heltzeko sokak... behatzen dituzte, oso kontrolatuta dago. Nik babesleak biltatzen ditut, bestela oso garestia baita.

**Jaietara itzulita, zein da zabaldu nahi duzun mezua?**
Ez dut oraindik pentsatu, baina ondo pasatzeko izan behar direla festak uste dut. Ni behintzat horretan saiatuko naiz, jaiak ilusioz eta lagun artean gozatzen igarotzea. Diberti gaitezen, hiru egun baino ez dira eta; arazo artean egoteko urteak 300 egun baino gehiago ditu!







# Gustu guztietarako osagaiekin osatu dituzte Okondoko jaiak



## 08.08
## OSTEGUNA

SAN ROMANGO JAIAK

**19:00 Ikuskizuna**
**PARTY MAN**
Haurrentzako disko antzerkia




**19:00-19:30 Bolo txapelketa**
Lehenengo 20 jaurtiketak



**20:00 Odolki jana**
La Ventillan, Florentxu eta bere mutilak taldeak girotuta

**22:30 Musika emanaldia**

**23:00 Mus txapelketa**

**23:30 Disko jaia**



## 08.09
## OSTIRALA

SAN ROMANGO JAIAK

**12:00 Meza**
San Romanen omenez

**12:30 Pintxo dastatzea**
Okondogoiena eskolan

**13:30 Igel tokako txapelketa**



**17:30 Briska txapelketa**



**18:30 Haur parkea**



**20:00 Makila jaurtiketa**

**21:00 Herri afaria**

## 08.22
## OSTEGUNA

SAN BARTOLOME JAIAK

**18:00 Futbito partidak**

**20:00 Super bingo**
Irabazi asmorik gabeko ekimena izango da. Kartoiek 50 zentimo balioko dute. Linea egiten duenak bildutako diruaren %30a jasoko du eta bingoa egiten duenak, aldiz, gainontzeko %70a

## 08.23
## OSTIRALA

**11:00 Paella txapelketa**

**11:00-14:00 "Beldur barik" gunearen irekiera**

**13:00 Txupinazoa**
Felipe Larrazabal arduratuko da pregoia irakurtzeaz. Ondoren, jaiari hasiera emateko suziria piztuko da eta paella lehiaketaren sariak banatuko dira



**16:00-18:00 Moto lasterketa eta joko tradizionalak**
Frontoian, 4-16 urte bitarteko haur eta gazteentzat

SAN BARTOLOME JAIAK

**17:00 Tute txapelketa**



**18:00 Antzerki emanaldia**
Trotamundos konpainiarekin, plazan

**18:00 Bolo txapelketa**



**19:30 Umeentzako diskofesta**

**21:00 Urdai eta txistorra dastatzea eta Garrafa erakustaldia**
Josu eta Unairen eskutik

**23:00 Musika emanaldia OIHAN VEGA**
Atsedenaldian txapela jaurtiketa egongo da



# 08.24
## LARUNBATA

SAN BARTOLOME JAIAK

**11:00 Bizikleta ibilbidea**
Adingabeak heldu batekin batera joan beharko dira eta derrigorrezkoa izango da kaskoa eramatea



**11:00-14:00 Landare lehiaketa**
Plazan

**12:00-12:30 Txu-txu trena**
Herriko pertsona nagusientzat

**12:30 Meza**
San Bartolomeren omenez. Itzalde abesbatzak abestuta

**12:30-14:00 Txu-txu trena**



**13:00 Eskupilota**

**16:00-19:00 Spartan race eta ping-pong txapelketa**
Futbol zelaian

**17:00 Mus txapelketa**

**18:30-20:30 Futbito finala eta ezkondu eta ezkongabeen arteko partida**

**20:30 Eusko Labeldun txerriki eta sardina dastatzea**
Inun taldea egongo da jotzen bien bitartean



**23:00 ZUKAR berbena**

# 08.25
## IGANDEA

**11:30-14:30 Umeentzako parkea eta zezen mekanikoa**
Frontoian



**11:00 Tortila txapelketa**
Bi kategoria egongo dira: 16 urtetik beherakoena eta 16 urtetik gorakoena



**12:00 Hildakoen omenezko meza**

**17:00 Briska txapelketa**

**17:00 Puzgarriak eta apar festa**
Igerilekuetan



**17:00 Plater tiroketa**

**19:00 Herri kirolak**
Plazan

**20:00 Frontenis txapelketa**

**20:30 Dantzaldia JUPITER taldearekin**

**22:00 Mozorro lehiaketa**



**23:00 Berbena KEN-BAT taldearekin**
Atsedenaldian txapela jaurtiketa egongo da

# Hiru argazki lehiaketa egingo ditu Ganekogorta Mendi Taldeak jaietan

ARGAZKIGINTZA SUSTATZEKO HELBURUAREKIN EKINTZA UGARI PRESTATU DITU GANEKOGORTA MENDI TALDEAK. SAN ROMAN, SAN BARTOLOME ETA IRABIENGO FESTETAN IZANGO DIRA TXAPELKETAK.



Argazkilaritza sekzioa lantzea". Hori da Ganekogorta Mendi Taldearen erronka berria, Justino Artok azaldu duenez. Jaien harira hiru argazki lehiaketa antolatu dituzte. Lehenbizikoa San Roman festetan izango da, abuztuaren 4tik 9ra. "San Bartolome jaietan ere egingo dugu lehiaketa, abuztuaren 23tik 25era", aurreratu du. Horrez gain, Irabiengo ospakizunetan ere errepikatuko dute egitasmoa.

Mendi jarduerez gain, kultur ekintzak gauzatzeari ekingo dio elkarteak, horrenbestez. "Pixkanaka egingo dugu. Xabier Ramosek gidatuko du, eta urtean zehar hitzaldi eta tailerrak egingo ditugu astero ordu eta erdiz", erantsi du.

Urtean zehar tokiko zenbait lehiaketa aurreikusi dituzte. "Jendeak arreta deitzen dion paisaia, ekintza edo pertsonei atera beharko dizkie argazkiak, auzo horretako jaiak izango dira gaia".

Partaide bakoitzak gehienez 5 lan aurkeztu ahalko ditu ganekogortamt@hotmail.es helbidean, "lehiaketa jaiekin batera hasi eta amaituko da". Batetik banakako kategoria egongo da, eta bestetik bildumena, "3-5 argazki". Sariak materialak izango dira: txakolin botilak, gaztak eta beste.

Jasotako irudiekin proiekzioak egingo dituzte, eta ondoren emango dituzte jakitera irabazleak. "Lanekin kartelak, erakusketak... egingo ditugu. Paperean inprimatuko ditugu Kultura Etxea dekoratzeko".

# #udariklik

## Udako argazki lehiaketa



### Kategoriak eta sariak

**Talde argazkiak** Osabarena Hotelean talde batentzako afarirako 75€-ko bonoa

**Aiaraldea** Hotel Orduña Plazan 2 lagunentzat gaua, gosaria eta spa zirkuitua

**Mundua** Guzurtegi jatetxean 2 lagunetnzat asteburuko menua

### Parte hartzeko

Bidali zure lana irailak 21 baino lehen

688 898 152 telefonora edo @aiaraldea #Udariklik traolarekin

Bozketa fasea: irailak 22-29 · Sari banaketa: irailak 30

OSABARENA

HOTEL ORDUÑA PLAZ

GUZURTEGI

AIARALDEA

# URDUÑAKO kale eta auzoetako jaiak

ABUZTUA / IRAILA



Gaizka Peñafiel

***Gora zuek! Gora gure hiriko eta auzoetako jaiak!***

URDUÑA ORDUÑA



**ITZIAR BIGURI UGARTE**
URDUÑAKO ALKATEA

Uda heldu da eta gure odola borborrean jartzen da. Egutegiari begira jartzen gara herriz herri dauden jaiak apuntatzeko, ez dugu bat ere ahaztu nahi. Ondo antolatu beharko dugu agenda herri guztietara joan nahi badugu! Ekainean hasi eta irailera arte topera egoten gara, ez dugu ondo pasatzeko aukera galdu nahi. Goizean hasi eta gauera arte kalean, asko gustatzen zaidan talde hori ikusi eta eguna egin arte dantzatzen egongo naiz. Bai, horrela izan da beti, uda jaiekin lotzen dugu. Eta horrela gertatzen da gure Urduñan. Auzoko eta Larruazabalgo herrietako jaien zain egoten gara. Terreroko jaiekin hasten gara eta Belandiakoekin bukatzen dugu. Noski Urdufolk irailaren hasieran dugula!

Hala ere, garrantzitsuena ez da jaiak noiz diren gogoratzea, jaiak auzolanari esker antolatzen direla kontuan hartzea baizik. Eskerrak oraindik ere auzoetan eta herrietan jende animatua dagoen urte askotan zehar antolatu izan diren jaiak ez galtzeko! Horretan ere ardura handia dugu Udal mandatariok, modu batean edo bestean jai horiek mantentzea izan behar da gure helburua, eta hor egongo gara ahal dugun eta laguntza gehien emateko.

# Urduña, Morrillonaren jait



Kalebarriako jaietako protagonista da Morrillona. Zeledonen inspiratutako pertsonaia da, urtero Bainuetxe Hoteleko balkoitik behera tirolinaz jaisten dena, haurrei gozokiak banatzen dizkien bitartean. Jaitsiera horren aspaldiko irudi bat da goikoa.

## 08.14
## ASTEAZKENA

**17:30 Txupinazoa**

**17:45 Saskigintza tailerra**
Josek eskainiko du tailerra, pertsona guztientzat

**18:00 Umeentzako jokoak**
Sariak egongo dira parte hartzaile guztientzat

**20:00 Umeentzako sokamuturra**

**20:30 Patata zuritzaileen III. Lehiaketa**

**21:30 Zinema**
**"ZUMA"**

**23:00 Bingo herrikoia**

## 08.15
## OSTEGUNA

**12:00 Bonba eta kohete jaurtiketa**

**12:15 Buruhandiak**

**12:30 Euskal dantza poteoa**
Erauntzi dantza taldearekin

**13:30 Txapela jaurtiketa lehiaketa**
Helduentzako eta haurrentzako

**14:30 Auzo bazkaria**
Bazkarian parte hartzeko Mahor

# tsieraren zain

liburudendan eman behar da izena aurretik

**17:00 Mus txapelketa**
Inskripzioak 20 euro balioko du bikote bakoitzeko

**18:00 Buruhandiak**

**18:30 Helduentzako igel txapelketa**
Inskripzioa doakoa izango da eta ardo botila bat eta gazta bat izango dira sariak

**19:30 Ikuskizuna "CIRCO GOYO"**
Zirku eta malabare ikuskizuna

**20:30 Morrillonaren bilaketa eta harrapaketa**

**21:30 Morrillonaren jeitsiera**



**22:00 Afari herrikoia**
Parrillada

**23:00 DJa**

## 08.16
## OSTIRALA

**9:30 Diana**

**10:30 Lore eskaintza**
Kale Barria hasieran dagoen patroiaren omenezko monumentuan

**12:30 Meza eta nagusiei omenaldia**

**13:30 Trikitia**

**16:00 Nagusiei bisita egoitzan**

**16:30 Umeentzako igel txapelketa**
Izen ematea doakoa izango da



**17:00 Tute Txapelketa**
Inskripzioak 10 euro balioko du bikote bakoitzeko

**17:30 Ur festa**
Bainujantzia eta txankletak eraman beharko dira

**18:30 Txokolate jana**

**19:00 Buruhandiak**

**20:00 Zozketa**
"San Rokeren miraria"

**20:30 Jaien amaierako traka**
Opariak egongo dira



GARABI
ESTUDIO DE ARQUITECTURA
KALE BARRIA, 11 behea URDUÑA
jugalde@garabi.net / erikar@garabi.net
Tel: 945 38 41 08 www.garabi.net

## ORRUÑOKO JAIAK

# 08.09
## OSTIRALA

**10:30 Diana eta biribilketa**

**12:00 Meza, Zedelikan**
Jarraian, erromeria eta luntxa egongo dira. 45 minutu lehenago taxi zerbitzua eskainiko da.



**17:00 Mus txapelketa**



**18:30 Txokolate jana**



**20:30 Berbena**

## KOROATZE JAIAK

# 08.31
## LARUNBATA

**11:00-14:30 Puzgarriak eta aurpegi margoketa**
Amaitzerakoan apar festa egongo da. Euria egingo balu ekintza hau hiriko frontoira mugituko litzateke

**13:00 Txistu poteoa**
Getxa-goi txitulari taldearen eskutik

**18:00 Emakumeen eta gizonen pilota partidak**
Frontoian egingo dira, Jai Alai Pilota Eskolak antolatuta. Sarrera doakoa izango da

**19:00-21:00 Koroatze Jaietako XI. Bolo Txapelketa**
Orduña Txolope Bolatoki Kirol Taldeak antolatuta

# 09.01
## IGANDEA

**10:30 Segizioa**
Antzinako santutegira

**11:00 Meza nagusia**
Antzinako santutegian

**13:00 Kantaldia**
Antzinako santutegian, Urduñako Abesbatzak lagunduta

**9:00-13:30 Urduñako Marmitako Txapelketaren XXI. edizioa eta Bizkaiko IV. edizioa**
"Kantaranas" txokoak antolatuta

**11:00-13:00 XI. Bolo txapelketa**
Orduña Txolope Bolatoki Kirol Taldearen eskutik

**12:30 Kalejira erraldoiekin**
Bihotza konpartsak antolatuta

**13:30 Santa Zezilia musika bandaren emanaldia**

**19:00 Dantza plaza**
Erdizka Lauetan taldearekin

# 09.08
## IGANDEA

**12:30-15:00 Euskal Abesti Herrikoiaren VI. Topaketa**
Foru plazan, "Kantaranas" txokoaren eskutik



# Folk doinuekin agurtuko dute abuztua Urduñan, zazpigarrenez



Koroatze jaien barruan egingo da Urdufolk jaialdia, abuztuaren 30 eta 31n. Folk musika oinarri duen topaketaren zazpigarren edizioa izango da aurtengoa. Aurreko urteetan bezala, musika lehiaketaren finalistak entzuteko aukera egongo da bertan. Uztailean itxi zuten taldeak aurkezteko epea eta laster jakinaraziko dute zeintzuk izango diren taula gainera igoko direnak.

**Bi talde**

Horrez gain, beste bi talde entzuteko parada egongo da jaialdiaren barruan. Hilaren 30ean Euskal Herriko Enekora taldeak joko du eta hurrengo egunean, aldiz, Castellon de la Planako Lépoka.

Iaz The Taverners taldea nagusitu zen lehiaketan. La Khaballa Band eta Alicia Alonso eta Gillermo Copello bikoteak lortu zituzten bigarren eta hirugarren postuak, hurrenez hurren.

# Auzolana oinarri, iraila hasieran ospatuko dituzte Antiguako jaiak

IRAILARI ONGIETORRIA EGITEKO AUKERA PAREGABEA EGONGO DA URDUÑAKO ANTIGUA AUZOAN. EGITARAU OPAROA PRESTATZEN ARI DIRA BERTAKO JAIETARAKO, BIZILAGUNEN ARTEKO ELKARLANEAN OINARRITUTA.



Iraila hasieran ospatuko dira Urduñako Antigua auzoko jaiak. Ohiko ekintzak egongo direla aurreratu dute antolatzaileek. Gastronomia txapelketa, umeentzako jolasak, berbena, afaria eta beste hainbat jarduera egongo dira. Baina egitarauaren osagai nagusia beste bat da: auzolana. Jaiak antolatzen dituen talde bat dagoen arren, bizilagun guztiek parte hartzen dute ekintzen egikaritzean.

Udaberria euskaltegia
Eman izena!
Jai Zoriontsuak!
A1etik C2ra
Maila guztiak
Helduak, gazteak eta haurrak
Azterketa ofizialak
Jardun Bikoa
Idazmena eta Mintzamena
Autoikaskuntza
MATRIKULATZE EPEA
Irailaren 2tik 26ra
2019 2020 ikasturtea
Urduña Amurrio
Euskara bertatik bertara!
udaberria.eus
info gehiago:
nramos@udaberria.eus
616 642 357

# MIKEL DEUNAKO JAIAK

## 09.28 LARUNBATA

**11:00 Txupinazoa eta txosnaren irekiera**

**11:30-14:00 Puzgarriak eta aupregi margoketa, umeentzat**

**11:00 Patata tortila txapelketa**
Parte hartzaileei patatak emango zaizkie, gainontzeko material eta osagaiak eurek eman beharko dituzte. Epaimahaia auzoko emakume eta gizonezko banak osatuko dute. Gazta bat txakoli botila bat izango da saria

**13:30 Triki poteoa**
Auzoko tabernetatik

**14:30 Auzo argazkia**



**15:00 Auzo bazkaria**
Bazkaria goizean egingo da auzolanean, bizilagun guztien artean jateko gero

**18:00 Goitibera jaitsiera**
Iaz egin zen lehenbiziko aldiz eta arrakasta handia izan zuen. Ez da saririk egongo

**19:00 Igel-toka eta txapela jaurtiketa txapelketak**
Umeek ere parte hartzeko aukera izango dute

**21:00 Herri parrillada**

**22:00 Zozketa**

**22:30 Kontzertua**

# BELANDIAKO JAIAK

## 10.05 LARUNBATA

**19:00 Puzgarriak eta umeentzako jokoak**

**19:00 Patata tortilla txapelketa**
Lehen saria 100 eurokoa izango da, bigarren 75 eurokoa eta hirugarrena, aldiz, 50 eurokoa. Antolakuntzak patatak, arrautzak eta tipulak emango ditu. Gainontzeko materialak parte hartzaileek eraman beharko dituzte

**20:00 Patata tortilen aurkezpena**

**20:30 Odoloste jan herrikoia**

**20:30 Sari banaketa eta tortilen dastatzea**

**21:00 Berbena eta kontzertua**

## 10.06 IGANDEA

**12:00 Kanpai errepika**

**12:00 Puzgarria**

**12:30 Meza**

**12:30 Egurrezko jokoak, trebezia lehiaketa**

**13:00 Euskal dantza**

**15:00 Zozketa**

## 10.07 ASTELEHENA

**12:00 Meza**
Hildakoen omenez

**13:00 Zozketa**







# ARRANKUDIAGAKO jaiak

ABUZTUAK 14-19



**TXUTXI ARIZNABARRETA**
ARRANKUDIAGA-ZOLLOKO ALKATEA

Andramari, kofradia eta berakatz eguna. Alaitasuna, umorea eta bizipoza. Hemen dira, barriro ere, Arrankudiagako jaiak. Gure herriaren nortasunaren adierazgarri. Urtean zehar izaten diren gorabehera guztien gainetik, danon arteko elkarbizitza sendotzeko egunak.

Eskerrik beroenak Jai Batzordeari eta jaien antolaketan parte hartzen dozuen talde, elkarte eta lagun guztioi. Zuen lanari esker doguz jai hain parte hartzaile, herrikoi eta euskaldunak. Umeetatik adinekoetara, herritar guztiok ondo pasatzeko egitarau oparoa.

Honelako egun alai eta herrikoietan ezin doguz ahaztu jaietan ezingo direnak egon: pertsona gaixoak, ezinduak, presoak, exiliatuak eta beste edozein arrazoigatik herritik urrun dagozenak. Geugaz izango doguz guztiak gure bihotzetan.

Aukera ezin hobea euskara arloan ere beste pausotxo bat egiteko: “belarriprest” edo “ahobizi”, danon artean, jaiak euskeraz bizi!

Igaro dagiguzan jaiak alaitasunean, elkartasunean, askatasunean eta berdintasunean. Eraso sexistarik EZ! LGTBIfobiarik EZ!




*Gora Arrankudiagako Andramari jaiak!*

Arrankudiaga-Zolloko Udala

# NEKANE OTSOA ABRISKETA



NEKANE OTSOA ABRISKETA (UGAO, 1959) ARRANKUDIAGAKO ESKOLAKO ZUZENDARIA IZAN DA ORAIN ARTE. 32 URTE EMAN DITU IKASTETXEAN LANEAN, ETA EKAINEAN AMAITU ZUEN BERE AZKEN IKASTURTEA. ANDRAMARI JAIETAKO LEHEN SUZIRIA PIZTEKO HAUTATU DUTE.

## *“Eskola txikiaren izpiritua mantentzea lortu dugu Arrankudiagan”*

**Aurten erretiratuko zara, Arrankudiagako Eskolan zuzendari urte andana igaro eta gero. Hori dela eta, aurtengo jaietako txupinera izateko hautatu zaituzte. Nola bizi dituzu une hauek?**

Aurten amaitzen dut eta imajinatzen dut horregatik hautatu nautela jaietako suziria pizteko. Umeekin egon nintzen azken astea bai izan zela berezia, 32 urteko ibilbideari amaiera eman niolako. Gauza asko mugitu ziren nire barruan. Guraso, ikasle, lankide eta ikasle ohien artean egin zidaten agurra. Espero ez nuen agur bat izan zen, gainera. Ez nuen uste halako agurrik egingo zidatenik... sorpresa guztiz hunkigarri eta polita izan zen. Egia esango dizut: omenaldi hura ostiralean izan zen, eta larunbat osoa eman nuen negarrez, asko hunkitu nintzelako.

Irakasleekin ere izan nuen agurra, eta hori ere oso polita izan zen. Izan ere, hiru eskola proiekturen koordinazioa eraman dut aurrera azken 15 urteetan.

**Txupinazoa zure agurraren "ginda" dela esan daiteke, beraz.**

Bai, oso proposamen polita da. Badirudi Arrankudiagan nire aztarna txikia utzi dudala.

**Arrankudiagako Eskolan eman duzu zure irakasle ibilbide osoa?**

Aurten 39 urte beteko ditut irakaskuntzan, eta Arrankudiagako Eskolan 32 urte igaro ditut.

**32 urtetan belaunaldi asko pasa dira eskolatik. Zer nolako bilakaera egon da?**

Eskolaren tamaina da gehien aldatu dena. Ni etorri nintzenean 29 ume eta hiru irakasle baino ez geunden. Estu eta larri genbiltzan, horren ume gutxi egonda ikastetxeak itxita amaituko zuela uste genuelako. Orain 124 ikasle eta 14 irakasle uzten ditut eskolan. Aldaketa handia izan da, beraz.

Baina tamaina handitu egin den arren ni beti saiatu naiz eskola txikiaren izpiritua mantentzen. Eskola txikiek dituzten onura guztiak baliatu behar dira edozein tamainako ikastetxeetan. Ahalegin handiak egin ditugu horretarako, eta horretan jarraituko dutela uste dut.

Arlo metodologikoan ere egon da aldaketa bat. Ez da bat-batean gauzatu eta ez da ere ez oso aldaketa handia izan, oinarrian beti egon baita metodologia bera, baina egiteko moduan bide propio bat eraikitzen eta ezartzen aritu gara. Lan sendo bat egon da hor, aztarna utzi duena.

**Zertan datza "eskola txikiaren izpiritua"?**

Eskola txikia izateak dakarren abantaila da adin ezberdinetako ikasleak nahastuta daudela, elkarren arteko interakzioan daudela etengabe. Guk orain aukera izango genuke, ikasle kopurua dela eta, haurrak mailaz maila taldekatzeko. Baina apurtu egin dugu horrekin. Gela berean adin ezberdinetako umeak izaten jarraitzen dugu. Aldaketak egin beharko ditugu antolakuntzan, gela bakoitzeko bi irakasle jarri... baina adin nahasketa ezinbestekoa da. Ikasleen artean ematen diren interakzioak hain dira aberatsak ikasketa prozesuari eta sozializazio prozesuari dagokionez, ezen ezin baitiogu uko egin. Behin eta berriro baliatzen dugu hori, etengabe.

Hori da "eskola txikiaren izpirituaren" zati bat. Beste bat da inguruarekin eta herriarekin harremana garatzen duzula. Herrian gertatzen dena eskolan sartzen da, eta hori mantentzea askoz zailagoa da eskola handi batean.

Arlo metodologikoari dagokionez, ez dugu testu-libururik erabiltzen eta proiektuka egiten dugu lan. Proiektuei buruz hitz egiten dugunean esanahi ezberdinak egoten dira hitz horren atzean. Horiek garatzeko modu propio bat dugu guk. Umeen jakinmin, galdera eta interesei erantzunak eta bidea ematea da ezinbestekoa guretzat. Inportantea da umeei autonomia ematea helburua nola lortu erabakitzeko. Eurek pentsatu eta erabaki behar dute zer egin lortu nahi duten xede horretara heltzeko. Konpetentzien kontzeptua bizi-bizirik dago hor. Umeak konpetenteak izan behar dira esku artean dituzten erronka guztiei aurre egiteko.

Ikasleen aniztasuna ulertzeko moduak ere bereizten gaitu. Haur guztiek ez dute zertan berdin erantzun erronka baten aurrean, ez dituzte estrategia berdinak erabiltzen, ez dituzte aurreiritzi eta hipotesi berdinak... Horregatik, gauza horiek ez ditugu oztopotzat hartzen, aberasgarritzatik baizik. Umeen artean ematen diren interakzioak, elkarlanak, elkar ulertzeak... hori dena garrantzitsua da proiektu baten garapenean.

Proiektu amaiera ere berezia da, burututako ibilbidea publiko egiten baita, gurasoen aurrean.

***"Eskolako umeekin egon nintzen azken astea bai izan zela berezia. Gauza asko mugitu ziren nire barruan"***

**Eskola uztear zauden une honetan, zeintzuk uste duzu izango direla zentroak datozen urteetan izango dituen erronkak?**

Eskola sendotzea gustatuko litzaidake. Zentroan geratzen den taldearekin nik uste dut hori bermatua dagoela, datorren ikasturterako behintzat. Gero irakasleak eta ikasleak aldatzen joango dira, eta baita garaiak ere... eta gauzak ere moldatzen joan beharko dira, ni sartu nintzenean zegoen eskola eta gaur egungoa berdinak ez ziren bezalaxe.

Nik uste urte hauetan guztietan zehar eskolak hoberantz jo duela, irakasleen praktikaren gaineko hausnarketaren ondorioek mugituta. Orain eskolan geratzen direnek ere hala egingo dute: analisiak egin eta horien emaitzen arabera joango dira gauzak modu batean edo bestean egiten.

Baina gure lehentasuna beti izango da umeen onerako jardutea, eskola txikiaren izpiritua mantendu edo ez, proiektuka lan egin edo ez. Niretzat eta eskolarentzat umea bera izan da beti garrantzitsuena, ikaslea bere ikasketa prozesuaren protagonista izatea. Nik uste hori mantenduko dela aurrerantzean, umearen ongizatea helburu. Helburura iristeko moduak aldatuz joan daitezke, baina helburua ezin da aldatu, nire ustez.

# Sei egunez luzatuko dira Arrankudiagako Andra Mari jaiak



EKILORE
JANARI DENDA
Etxez etxeko zerbitzua
Bertako produktuak
Elexalde kalea 18,
Arrankudiaga
688 630 165

TABERNA IBERLANDA
Ondo pasa jaietan!
Iberlanda auzoa 4, ARRANKUDIAGA
676 074 839

## 08.14 ASTEAZKENA

BEZPERA EGUNA

**17:30 Kamisetak banatzea**

**18:00 XXXI. Marmitako Lehiaketa**
Izen ematea 18:00etatik 18:30etara egin ahal izango da



**19:30 XXII. Tortila Txapelketa**
Herriko 0 eta 18 urte bitarteko gazteei bideratutako lehiaketa izango da. Izen ematea 18:00etatik 18:30era egin ahal izango da

**20:00 Tortila eta marmitako lapikoen aurkezpena**

**20:15 Txupinazoa**
Nekane Otxoa Abrisketaren eskutik



**22:30 Musika emanaldia DJ MARISKAL**

## 08.15
## OSTEGUNA

ANDRA MARI

**10:00 Diana**

**11:00 Meza Nagusia**

**19:00 Pilota partidak**

**20:30 Kontzertua**
**MAIDER ZABALEGI**
Alaitz eta Maider taldeko kide ohiak bakarka plazaratu dituen bi diskoetako abestiak joko ditu



## 08.16
## OSTIRALA

GAZTE EGUNA

**12:00 Graffiti tailerra**

**14:30 Jubilatuen bazkaria**
Gizarte etxean

**15:00 Bertso bazkaria**
Gaztetxean

**18:30 Javier Escalza Futbol 7 Express txapelketa**

**20:00 Pintxopote musikatua**

**22:00 DJ ADRIAN**

## 08.17
## LARUNBATA

UMEEN EGUNA

**10:00 Altxorraren bila**
Matxinkortak antolatuta

**11:30 Umeen kalejira**
Garondotik Elexaldera

**12:00 Umeeentzako jolas parkea**
Elexalden

**14:30 Umeen bazkaria**
Izena emateko azken eguna abuztuaren 10a izango da. Gizarte Etxean egongo da horretarako aukera

**16:30 Apar festa umeentzat**
Garondon

**17:30 Boloak**
Umeen tirada

**18:30 Boloak**
Nagusien tirada, J.I Larrazabalen IV. Memoriala

**19:00 Bingoa**

**21:30 Kanpamentukoen ekitaldia**
Frontoian

**12:30 "Goooool!"**
Umeen saioa

**13:30 Elkarretaratzea**
"Korapiloak asaktzeko unea da, denok batera presoak etxera!" lemapean

**14:00 Umeen kofradia bazkaria**

**14:30 Kofradia bazkaria**
Eliza atarian

**16:30 Kantaldia**
**JOXE MENDIZABAL**

**17:00 Mus Txapelketa**

**18:30 "Goooool!"**
Helduen saioa

**20:00 Kontzertua**
**PURO RELAJO**

## 08.18
## IGANDEA

KOFRADIA EGUNA

**10:30 Diana**

**11:00 Meza**

**12:00 Txakolin dastatzea eta erakusketa**

## 08.19
## ASTELEHENA

**19:00 Pilota partidak**

**21:30 Odoloste jana**
Herriko tabernetan

**22:30 Kontzertuak**
**MODUS OPERANDI**
**GARILAK 26**
Betagarri, Vendetta eta Laurobako hainbat taldekide ohiek osatzen dute Modus Operandi taldea. Ska, punk eta rock doinuak uztartzen dituzte

**05:00 Berakatz zopa eta jaien amaiera**

# Asteburu bete ekintza Atxetan

Iraileko bigarren asteburuan izango dira Atxetako jaiak, irailaren 14 eta 15ean. Mota askotako jarduerak egingo dituzte: umeentzako ekintzak, Jesus Gorostizagaren memorial gastronomikoa, buruhandien kalejira... Musikak ere protagonismo nabarmena izango du. Larunbatean Puro Relajo eta El Límite taldeak igoko dira oholtzara. Igandean, aldiz, *Piano Taupadak* emanaldiaz gozatzeko aukera egongo da, Izaskun del Cerroren eta eskualdeko beste hainbat sortzaileren eskutik.



## 09.14 LARUNBATA

Goiz osoan zehar baserriko produktuen salmenta egongo da

**12:00 Txupinazoa**

**12:00 Umeentzako tailerrak, puzgarriak eta jolasak**

**12:30 Pintxo poteoa**

**12:30 Txapelketa gastronomikoa**
J. Gorostizagaren X. Memoriala



**14:30 Sari banaketa eta bazkaria**

**16:00 Umeentzako aurpegi eta azazkal margoketa eta puzgarriak**



**17:00 Buruhandiak**

**18:00 Haurrentzako zumba**
**IZASKUN DEL CERRO**

**19:00 Txokolate jan herrikoia**

**19:30 Dantza plaza**

**21:00 Kontzertua**
**PURO RELAJO**

**22:30 Txistorra jana**

**22:45 Kontzertua**
**EL LÍMITE**

## 09.15 IGANDEA

**12:00 Diana eta kalejira**

**13:00 Meza**

**14:30 Bazkari herrikoia eta bingoa**

**18:00 Kontzertua**
**PIANO TAUPADAK**
Izaskun del Cerro pianojole urduñarrak gidatutako ikuskizuna, eskualdeko beste hainbat artistarekin batera elkarlanean egina



**19:15 XXX. Igel Txapelketa**

**20:15 Sari banaketa**

**20:15 Azken bolandera**

# AMURRIOKO jaiak

ABUZTUAREN 12TIK 17RA




*Gora Amurrioko jaiak!*

AMURRIO
UDALA
AYUNTAMIENTO



**JOSUNE IRABIEN MARIGORTA**
AMURRIOKO ALKATEA

Amurrioar agurgarria,
Amurrioko jaiak bertan ditugu. Guztiok nahi dugun unea da, egunerokoa haustearekin batera guztiontzako jardueretan gozatzeko balio digu.
Sei egunetan zehar jai-giroan murgilduko gara kultura, kirol eta jai-jardueretan. Herri-festa hauetan tolerantzia, begirunea eta elkartasuna ardatzak izango dira guztiok berdin-berdin gozatzeko.
Jai-programa honetan parte hartzen duten talde zein pertsona guztiei biziki eskertu nahi diet eginiko lana jaiak gero eta hobeak izan daitezen. Halaber, aurtengo jaietan gure artean ez direnak gogoan izan nahi ditut eta lehenengo aldiz hemen, Amurrion, daudenei ongi etorri esan.
Jaiak gozatzeko dira, guztiontzat, eta errespetua eta tolerantzia abiapuntu batetik, izan ere, Amurrion ez dugu inolako eraso sexistarik onartuko.Jaietan errespetu osoz eta parte hartzeko gogoekin, izan gaitezen jaiaren parte!

# AIARA DANTZA TALDEA

AIARA DANTZA TALDEA IZANGO DA AMURRIOKO JAIETAKO PREGOILARIA. 35 URTE BETE DITU TALDEAK AURTEN, ETA HAINBAT EKINTZA ANTOLATU DITUZTE HORI OSPATZEKO.

*"35. urteurrena ospatzeko modu hobezina da pregoilari izatea"*



**Aiara Dantza Taldeko kideei egokitu zaizue aurten Amurrioko San Roke jaietako pregoilariak izatea. Nola jaso duzue albistea? Espero zenuten?**

Oso pozik hartu dugu albistea. Urteurrena ospatzeko modu paregabea da herriak bere hitza eta konfiantza eman izana. Oso eskertuta gaude, ohore bat da.

**Baduzue pregoia prestatuta? Zer edo zer aurreratzerik?**

Arina izango da aurtengo pregoia. Gure sorrera eta ibilbidea laburki kontatuko dugu eta jai parekide eta herrikoien alde egitearen deia helaraziko diogu herritar orori. Era berean, taldeko kide eta boluntario izan diren guztiei eskerrak emateko aprobetxatuko dugu.

VETER|SALUD
Instituto Médico Veterinario de Álava
Maskuribai poligonoa Z9 - Z11
01470 Amurrio (Araba)
Tel.: 945 028 910 · 945 393 477
Larrialdiak: 656 788 800
www.imva.es

INSTALACIONES RAGA IBARRONDO
ITURGINTZA BEROKUNTZA GAS AIRE GIROTUA
Denda 945 30 37 35
Jesús 636 42 80 15
Juanmi 620 63 81 38
Susana 636 77 74 55
José Madinabeitia, 1
Amurrio
ragaibarrondo@gmail.com
www.ragaibarrondo.com

**Taldearen 35. urteurrena ospatzen ari zarete aurten. Nola baloratzen duzue taldeak izandako ibilbidea?**

Oso positiboki baloratzen dugu unera arte egindako lana. Egun dugun dantzari kopurua inoiz izandako altuena da, eta gurasoen elkarlana eta inplikazioa ere handia dela uste dugu. Gainera, ume eta gazteez gain, heldutasunean ere jende asko batu da azken urteetan gurera, eta hori poztekoa da.

**Beste 35 urte bizitzeko indarrekin aurkitzen zarete?**

Gaur egun, jada zortzigarren urtez, neska gazte talde berdinak darama taldearen zuzendaritza eta antolaketa. Nolanahi ere, erreleboa pixkanaka hasi zaigu etortzen, gogoz eta indar handiz. Jakina taldeak beste 35 urte bizirauteko indarra duela, baita gehiago ere. Gogotsu hartuko ditugu datozen erronka eta berritasun guztiak.

**Hainbat egitasmo prestatu dituzue urteurrena ospatzeko.**

Bai, guk urtea lasai hasteko asmoa bagenuen ere, azkenean guk antolatutako jarduerez gain beste zenbait proposatu dizkigute eta ikasturte nahiko betea izan dugu: Otsailean Nahas-Jolas ikuskizuna aurkeztu genuen Amurrioko antzokian, bi pase beteta, ondoren Guk saria eta gala etorri ziren, apirilean Gasteizko erretretan dantzatzeko aukera izan genuen San Prudentzio bezperan eta, azkenik, maiatzean Euskal Jaia antolatzen dugula aprobetxatuz, 35. urteurreneko jaia ospatu genuen. Dantzari ohi bila ibili ginen horretarako eta, egia esan, jende nahiko hurbildu zitzaigun!Urtea amaitzeko -edo 2020 hasierarako- ere sopresatxoren bat prestatzeko asmoa dugu, ikusiko da!

**Jaietan ere hainbat ekintza egingo dituzue...**

Amurrioko jaietan urtero egiten ditugun ekintzak egiten jarraituko dugu, jaien hasieraz eta pregoiaren irakurketaz gain noski: Andra Mari egunean ohorezko aurreskua dantzatuko dugu eguerdiko mezan eta arratsaldean ordu beteko dantzaldia eskainiko dugu. Done Erroke egunean, berriz, 54. Aurresku eta Fandango eta Arin-arin Txapelketa antolatuko dugu San Roken.

**Zer funtzio betetzen du dantzak, zuen ustez, Amurrioko jaietan?**

Herriari bertako kultura hurbiltzen diogula sentitzen dugu. Abuztuaren 15eko dantzaldia Amurrioko jaietan dagoen ekintzarik jendetsuenetarikoa da. Pentsa pasa den urtean ateratako argazki batean 900 ikusle inguru ere zenbatu ditugula eta dantzan beste 150 edo ari ginela! Kultura ekintza gutxirekin gertatzen da. Herritik eta boluntarioki antolatzen den zerbait da gainera, ikaragarria da.

mundiSalud
Clínica Dental
Zure irribarrearen zerbitzura lanean

· Neurrirako finantzaketa
· Kolektibo handiekin adostuta
ADITUAK
· Odontologia orokorra
· Kirurgia
· Ortodontzia
· Estetika
· Plasma
· PADI
· Inplanteak
BERRIKUNTZAK
· 3D Erradiologia
· Ortodontzia ikusezina
AMURRIO ETA LAUDIOKO AIALA MEDIKU-ZENTRO BARRUAN GAUDE
Amurrio
Iritxusi 4-6
945891469
Laudio
Zumalakarregi 3, behea
www.clinicadentalmundisalud.com 946721927

# 08.09
## OSTIRALA

**9:45 Odola emateko kanpaina**
Larrinagako oinezkoen gunean

# 08.10
## LARUNBATA

**9:00 "Jose Luis Sasiain" memorialaren III. edizioa**
Txakur lehiaketa Kortabarriako zelaietan jokatuko da

**12:00 Paella txapelketa**
Parkean egingo da norgehiagoka, Jai Herrikoien Aldeko Batzordeak antolatuta

**13:00 Paella bazkaria**
Parkean, Jai Herrikoien Aldeko Batzordeak lagunduta

**16:00 Txapel jaurtiketa**
Parkean, Jai Herrikoien Aldeko Batzordeak dinamizatuta

**17:00 Kontzertua**
**PERDIDO ENTRE ILUSIONES**
Parkean, Jai Herrikoien Aldeko Batzordeak atonduta

**18:30 Txupinazoa eta pregoi herrikoia**
Parkean, Jai Herrikoien Aldeko Batzordeak deituta

**19:00 V. Jose Negrete Sariketa**
Amorebieta eta Leioaren arteko futbol partida Basarten, doan

**19:30 Kalejira aldarrikatzailea**
Herritik, Jai Herrikoien Aldeko Batzordeak antolatuta

**22:00 Kontzertuak**
**FEARS AWAY**
**LEIHOTIKAN**
**MARIANITOZ BAI**
**DANTZETAN JARRAI**
Txosnagunean, Jai Herrikoien Aldeko Batzordearen eskutik



Saioa "Gauilunak"




FISIOTERAPEUTAK
**Estibaliz Robredo Ruiz de Azua**
kol. zenbakia/1233
**Esther García Galindez**
kol. zenbakia/1271

myos terapia integrala

ALDEZ AURRETIKO HITZORDUA
945 06 68 60 · 629 93 42 91

Armurubenta 5, behea
AMURRIO

· **Fisioterapia eta Osteopatia**
· **Pelbis-zoruaren errehabilitazioa**
· **Gimnasia abdominal hipopresiboa**



# 08.11 IGANDEA

Prezio berezia egongo da Lucas Reyko barraketan: 1 euro bidaiko

**9:30 X. Marmitako Txapelketa**
Juan Urrutia plazan, Amurrio
Su-Gozotan taldeak prestatuta

**13:00 Kazolak entregatzea eta dastaketa herrikoia**

**14:00 Txapelketaren sari banaketa**
Juan Urrutia plazan

**16:30 "Gotzon Landeta" XV. Mus Txapelketa**
Txokogorrin, Jai Herrikoien Aldeko Batzordeak antolatuta

KOMIKIA

# *Gure aizkorarik zorrotzena*

## Eider Garcia Gomez




Alanbike
CAFÉ-BAR
Ondo pasa jaietan!
Dionisio Aldama · T 945 89 31 45 · Amurrio

BAIMENDUN INSTALATZAILEA
Iturgintza - Berogailua - Gasa - Aire girotua
CASTRO
David Castro
ITURGINTZA INSTALATZAILEA
INSTALAZIO TERMIKOAK JARTZEA ETA HORIEN MANTENUA
GAS IG-B INSTALATZAILEA
Elexondo 24, Amurrio (Araba) · kaxyus@hotmail.com 676 02 33 93 - 685 26 69 31
www.fontaneriacastro.com

bebidas Serrano
Jaietan ere, zuekin!
www.bebidasserrano.com

adi grafik
DISEINU GRAFIKOA ETA INPRIMAKETA
DISEÑO GRÁFICO E IMPRESIÓN
Tel. 945 89 08 46 | www.adigrafik.com | adi@adigrafik.com



# Ainhoa Comas

BERTSOLARIA

## Nik bizitako Amurrioko jaiak

Jaietako anekdotaren bat kontatzeko lana hartuta, onartu beharra daukat ez naizela ni Amurrioko jaien eredu eta ahots: dagoeneko utzi diot programan nire aurpegia bilatzeari. Kuadrilako lehen kalimotxoen istorioak atzerritik entzun nituen nik.

Goiz utzi nion kuadrilako jantzia janzteari. Ez dakit erosotasunagatik edo nik neuk asmatutako arauren bategatik, eta lagunekin arropa trukean pasatzen nituen irten aurreko orduak. Itsusi geratzen da esatea, baina karrozen desfileren batean Laudiora ere joatera iritsi naiz, errukabe gainera; bueltan herrian geratzen zirenekin bukatu dut gaua gehienetan ordea, norbere handitutako gau-abentura kontari, nor besteak bizitakoaren inbidiaz. Egin ditudan gaupasa gehienek ere ez dute helmuga zezen plaza izan, eta pozten banaiz ere, kebapa gosaltzeak ez dauka erromantizismo berbera. Mozkor gutxi dago orain San Rokeko landetan lo.

Dena ez da pekatu, baina. Penitentzian, urteetan zehar egon naiz lehen eguneko bazkariko kubatari uko egiten, inork entzuten ez dituen txupinazoko lehen bertsoak duintasun apur batekin kantatzeko. Uste dut horrek odolosteen ilaran lotsarik gabe ipintzeko eskubidea ematen didala. Txosnan ere egin izan ditut txandak, konpromiso eredugarria duten zenbait herrikidek baino gutxiago, hori bai. Eta eskerrak dauden: metalezko barran tragoaz lagunduta irensten ditugu kexak, bertan hasten ditugu kontatzeko modukoak ez diren istorioak, eta ohartzerako egun argitan joaten gara etxera, ezezagunen bat ezagun, eta ezagunak lagunago direla.

## 08.12 ASTELEHENA

**11:30 "Amurrio Hiribildua" Pilota Txapelketako finalerdiak**
Udal pilotalekuan

**13:00 Kuadrillen aurkezpena**
Juan Urrutia plazan

**13:30 Musika poteoa**
Herritik, Jai Herrikoien Aldeko Batzordeak antolatuta

**14:30 Gazte bazkaria**
Gazte karpan, Jai Herrikoien Aldeko Batzordearen eskutik

**16:30 Bingo musikatua**
Gazte karpan, Jai Herrikoien Aldeko Batzordeak gidatuta

**18:15 Jaietako pregoiaren irakurketa**
Udalbatza aretoan, Aiara Dantza Taldearen eskutik

**18:30 Jai kuadrillen igoera**
Urrutia Jauregiko landatik Juan Urrutia Plazara



**18:40 Jai kuadrillen ordezkarien aurkezpena eta bandak jartzea**
Udalbatza aretoan

**19:00 Txupinazoa**
Jarraian kalejira egongo da, erraldoiek eta Battuere batukada taldeak lagunduta

**19:30 Kontzertua HOTEL RUIDO**
Elexondoko oinezkoen gunean

**19:00-22:00 Indarkeria sexistarik gabeko gunea**
Emagin Euskal Herriko Bilgune Feministareren eskutik, Larrinaga kalean

**22:00 Profesionalen pilota partidak**
Victor Esteba-Iñaki Artola eta Ander Imaz-Jon Mariezkurrena, udal pilotalekuan

**22:30 Orkestra**
**MALIBU SHOW**
Larrinaga kaleko oinezkoen gunean

**22:30 Kontzertua**
**MUGAN**
**IRAMO**
**NIZURI TAZUNERI**
**OHARKABE ERROMERIA**
Txosnagunean, Jai Herrikoien Aldeko Batzordeak antolatuta





nr ABOGADOS
Gabinete jurídico
DIZIPLINA ANITZEKO ZUZENBIDE DEFENTSA
FINKA ADMINISTRAZIOA
ZERGA ETA KONTABILITATE KUDEAKETA
www.nr-abogados.com
Dionisio Aldama, 5 · AMURRIO
945 034 011 · 615 767 339 · soniagmadrigal@nr-abogados.com
Kale Barria, 31-behea · URDUÑA

Aiaraldeko herrietako jaiez gozatu!
DARABAGU
ARABA EUSKARAZ 2020 AMURRIO
@arabaeuskaraz
www.facebook.com/arabaeuskaraz
arabaeuskaraz
ARESKETA IKASTOLA
aresketaikastola@aresketaikastola.eus
Aresketa auzoa, 2
01470 Amurrio Araba
Aresketa ikastola
www.arabaeuskaraz.eus

# 08.13
## ASTEARTEA

**10:00-15:00 Txupete jasotzea**
Amurrioko haurren txupeteak udaletxeko ate nagusian jasoko dira eta Iguarrakoak abuztuaren 17an eramango ditu

**10:30 Ekitaldia udaletxean**
2019ko udan Amurrioko harrera familietan dauden haurrentzat



**11:00-14:00 Haur parkea**
Udal parkean egingo da eta amaieran apar festa egongo da



**11:00 Ekitaldia udaletxean**
Alkateak udalbatza aretoan Hiribilduko pertsonarik helduenari makila emango dio. Jarraian, trikitilariez lagunduta elizara abiatuko dira



**11:30 Nagusien omenezko meza**
Mariaka abesbatzarekin
Jarraian, Udalbatzak "San Anton Armuru" egoitza bisitatuko du

**12:00 Buruhandiak**



**12:30 Nagusientzako janaurrekoa eta musika animazioa Ganekorekin**
Amurrio Hiribilduko Familia Elkartearen eskutik

**14:00 Atzoko gazteentzako anaitasun bazkaria**
Udal Pilotalekuan



**14:00 Haurrentzako bazkaria**
Paella, udal parkean Aurreraka eta Amurrioko Eskaut taldeen laguntzarekin

**14:00 Poteo feminista**
Herritik, Jai Herrikoien Aldeko Batzordeak antolatuta

**15:00 Emakumeon* bazkaria**
Gazte Karpan, Otsemeaken eskutik

**16:30 Buruberokiak egiteko txokoa, masaje eta zaintza gunea...**
Parkean, Jai Herrikoien Aldeko Batzordeak antolatuta

**16:00 Dantzaldia Jamaika taldearekin**
Frontoi kalean

**16:00 Haurrentzako ginkana**
Udal parkean

**18:00 Familientzako berbena PARTYMAN JONES**
Udal parkean

**19:00 Hip-hop eta popping tailerrak**
San Anton plazan



**19:30 Buruhandiak**

**20:00 Musika afrikar kontzertua SAHARA LIBRE**
Udal parkean

**20:00 Musika animazioa Beti-Jai fanfarrearekin**

**20:30 Bertso saioa**
**JON MAIA**
**MIREN AMURIZA**
**IÑAKI VIÑASPRE**
**IRATI ALCANTARILLA**
Txosnagunean, AIEBEK antolatuta



**23:00 Kontzertuak**
**SUAIA ETA AMA REBEL**
**BAD SOUND SYSTEM**
Juan Urrutia plazan



**1:00 Kontzertuak**
**POTTORS DESTROYERS ft. DJ ZETA MOREA**
**meets. Aiaraldeko neska* gazteak oholtzan**
Gazte Karpan









# Egun Feminista egingo dute lehenbizikoz Amurrioko jaietan

OTSEMEAK TALDEAK JAIEI BEGIRAKO PLANTEAMENDUA AURKEZTU DU. ABUZTUAREN 13AN "EGUN FEMINISTA" EGINGO DUTE, ETA 10EAN MANIFESTAZIOA. ERASO MATXISTAK SALATZEKO PROTOKOLOA ETA TELEFONOA ERE EGONGO DIRA.

Abuztuaren 10etik 17ra murgilduko da jaietan Amurrio, izan ere, Jai Herrikoien Aldeko Batzordeak Iguarrakoa atera aurretik makina bat ekintza antolatu ditu. Abuztuaren 10ean abiatuko dituzte festa herrikoiak. Ondorioz, Otsemeaken manifestazioa egun horretan izango da. Horrez gain, eraso matxistak salatzeko protokoloa eta telefonoa egongo dira 24 orduz martxan (688752784).

**Egun osoko egitaraua**

Nobedade gisa, Egun Feminista egingo dute abuztuaren 13an. Eguerditik aurrerako egitaraua osatu dute horretarako: 14:00etan poteo feminista egingo dute herritik, eta 15:00etan "Emakumeon* bazkaria"; txartelak Txokogorrin egongo dira salgai. Arratsaldean, berriz, siesta, zaintza eta masaje guneak atonduko dituzte. Emakumeak elkartu eta erdigunean jartzeko helburuarekin, gaueko oholtza eskaintzan ere feminismoa izango da nagusi. Izan ere, 22:00etatik aurrera ez da aukerarik faltako "DJ Pottors Destroyers eta Dj Zeta Morea meets Aiaraldeko neska*gazteak oholtzan" ikusteko eta gorputzak dantzan askatzeko.



**Eraso matxistak salatzeko telefonoa 688 752 784**

Electricidad Albizua, S.L.
Tel. 608 87 05 13
945 89 07 02
Aldaiturriaga poligonoa, E2
AMURRIO
Jai zoriontsuak opa dizkizuegu!

El Rinconcito
Larrinaga 1,
AMURRIO

# 08.14
## ASTEAZKENA

**10:00 Baserriko produktuen erakusketa eta lehiaketa**
Juan Urrutia plazan

**11:00-14:00 Haur parkea**
Udal parkean egingo da eta amaieran apar festa egongo da

**11:30 "Amurrio Hiribildua" pilota txapelketako finalak**
Udal Pilotalekuan

**12:30 Musika animazioa trikitixarekin**
Ander eta Lander bikotearekin

**13:00 Trikipoteoa kuadrillekin**
Abiapuntua kiosko ondoan izango da

**13:00 Ziza dastatzea**
Arriola Mikologia Elkartearen eskutik, Juan Urrutia plazan

**14:00 Baserriko produktuen lehiaketako sari banaketa**
Juan Urrutia plazan

**15:00 Kuadrillen bazkaria**
San Antonen

**17:00 Karaokea**
San Antonen, Jai Herrikoien Aldeko Batzordeak antolatuta

**19:30 Kuadrillen jolasak**
Parkean

**19:30 Lore eskaintza jasokundeko Andra Mariari**
Andra Mariaren parrokian

**20:00 Odoloste jana**
San Anton plazan. 1,50€ balioko du ogitartekoak

**20:00 Musika animazioa**
Gaitero eskoziar batekin

**21:00 Kalejira musikatua**
Txosnagunetik, Jai Herrikoien Aldeko Batzordeak gidatuta

**21:00-23:00 III. DJ Gaua**
BAK Produzioen eskutik
Larrinagako oinezkoen gunean

**1:00 Musika jaialdia**
**SINAI (UK) ETA AIARALDEKO (EH) SOINU SISTEMEN TOPAKETA**
Txosnagunean izango da Jai Herrikoien Aldeko Batzordeak antolatuta

**21:00-24:00 Indarkeria sexistarik gabeko gunea**
Emagin Euskal Herriko Bilgune Feministaren eskutik, Larrinaga kalean

**23:00 Kontzertuak**
**SAMOAH**
**GREEN VALLEY**



**00:30 Alkohol tasa neurtzeko kanpaina**
Larrinaga kalean

**02:00 III. DJ Gaua**
BAK Produzioen eskutik
Larrinagako oinezkoen gunean



neumaticos
CAMARERO, S.L.



· Marka guztietako neumatikoak
· Mekanika arina
· Motor mekanika:
> Lozagia
> Banaketa uhala
> Kulata-juntura...
Zumalakarregi etorbidea 66. LAUDIO
Maskuribai industrialdea, pab. C-01- AMURRIO

AMA BIRJINAREN EGUNA

# 08.15
## OSTEGUNA

**10:00 Kanpai iraulketa**
Suziriak botako dira jaia iragartzeko

**10:00 Txirrindularitza Sari Nagusia: LXVI. Aiara Zirkuitua**
Elite eta Sub23 mailak, Arabako Txapelketa eta "Daniel Albizuaren omenezko lasterketa"

**10:30 Dianak trikitixekin**

**10:45 Kalejira Andra Mariaren elizaraino**



**11:00 Meza nagusia**
Andra Mariaren Parrokian. Amaieran ohorezko aurreskua egingo da

**12:30 Kalejira**
Amurrioko erraldoiekin eta buruhandiekin

**12:30 Elkarretaratzea**
"Korapiloak askatzeko unea da" lemapean Juan Urrutia plazan, Jai Herrikoien Aldeko Batzordeak antolatuta

**12:30 Harrera ekitaldia**
Udaletxean agintari eta jaien partaideei

**12:30 Herri kirolak**
Juan Urrutia plazan

**13:30 Txirrindulari lasterketako Sari Nagusiaren banaketa**

**19:30 Euskal dantzen erakustaldia**
Aiara Dantza Taldearekin Juan Urrutia plazan

**20:30 Musika animazioa**
Dunbots fanfarrearekin

**22:30 Bost folk kontzertua XABI ABURRUZAGA**
bere folk taldearekin, Juan Urrutia plazan

**00:00 Beti dantzetan**
Juan Urrutia plazan

**00:00 Basati kirolak**
Parkean, Jai Herrikoien Aldeko Batzordeak antolatuta

**00:00 Musika emaldia DJ TRUE ETA TOKX**
Gazte karpan

AIALAN
TELECOMUNICACIONES

TDT / SAT
ATEZAINAK / BIDEO-ATEZAINAK

FRAN GARCÍA
TEL / WHATSAPP 663 500 952
EMAIL fran@aialan.com

www.aialan.com

*A motako Telekomunikazio Instalatzaile Enpresen Erregistroan inskribatuta, zure ekipoa 2.dibidendu digitaleko askapenera egokitzeko eta Ministerioaren diru-laguntza kudeatzeko gai gara.*

# 08.16
# OSTIRALA

**8:30 San Rokeko zelaietara joan eta etortzeko doako autobusa**
Gasolindegitik autobusa ordu erdiro irtengo da. Geralekuak: elizako biribilgunea eta San Jose eliza. San Roketik azken irteera 14:30ean

**10:00 Santuaren igoera**
Andra Mariaren elizatik San Roke baselizaraino

**10:30 Ganadu erakusketa, "San Roke azoka"**

**11:00 Musika animazioa**
Trikitixarekin San Rokeko zelaietan

**11:30 Meza Nagusia**
Mariaka Abesbatzarekin

**12:30 Aurresku eta Joten LIV. Txapelketa**
Aiara Dantza Taldeak antolatuta



**13:00 Txekor pisaketa**
San Rokeko zelaian, Kinielak egingo dira

**19:00 Haurrentzako Playback Erakustaldia**
San Anton plazan

**20:00 Kale antzerkia "PROZAK"**
Malas Compañías zirko taldearekin Larrinagako oinezkoen aldean

**21:00 Kontzertua PURO RELAJO**
Euskal Herriko eta Mexikoko kanten bertsioak, Juan urrutia plazan

**22:15 Karroza desfilea**
Elizako birigilgunetik abiatuta

**23:30 Berbena TRIKIZIO**
Juan Urrutia plazan

**01:30 Karroza lehiaketaren sari banaketa**
Juan Urrutia plazan

**Berbenaren ostean DJ RUBA**
Juan Urrutia plazan





ARATEI, SL.
ENPRESA ERAIKITZAILEA

Teilen instalatzaile eta banatzaileak
TEJAS BORJA

Instalatzaile eta banatzaileak
PROPAMSA

Adituak teilatu eta fatxadetan
Hondeaketak eta eraisketak
Forjak eta zurezko estrukturak
Aldamioen alogera eta muntaia
Teilatu-hodiak eta zorrotenak
Sistema termikoak
S.A.T.E.

BILTEGIA:
Garai etorbidea, 19
ARTZINIEGA

Zankueta poligonoa PAB-1
(Larrinbe) AMURRIO

TEL. 902 99 67 12
616 66 28 40
aratei@aratei.com
www.aratei.com



# Aketza Merino

HISTORIALARIA

## Beste garai bateko jaiak

*El Heraldo Alavés* egunkariko korrespontsalek Amurrioko 1902 eta 1906ko jaiak jarraitu zituzten bertatik bertara. Garai hartakoak oso ezberdinak ziren gaur egunekoekin alderatuta. Normalean, bi eguneko jaiak izaten ziren -abuztuaren 15ean eta 16an- eta hiru ekitaldi mota ziren garrantzitsuenak: mezak, dantzak eta zezenak. Korrespontsalek diotenez, jendez gainezka zegoen herria, bertokoekin batera udatiar ugari zegoelako, eta Bilbo zein Urduñatik trenez etorritako jende mordoa. Herriko egun nagusia dianekin hasten zen eta kanpai-hotsek mezara deitzen zituzten amurrioarrak. Sermoia Urduñako jesuitaren batek egiten zuen. 1902an Juan Nanclares organo joleak gidatutako orkestrak konposizio batzuk jo zituen meza ostean, eta Abundio Goñi Urcelai gazte amurrioarrak abestu zuen.

Jan ondoren, dantzaldia egiten zen, musika banda eta txistulariak txandakatuta, zezenen ordua heldu bitartean. 1906ko korrida tamalgarria izan zen, zezenak handiegiak zirelako hain trebetasun gabeko toreatzaileentzat; zaurituak izan ziren guztiak bat izan ezik. Dirudienez, 1902an ez zen korridarik egon, baina erromeria pil-pilean zegoenean suzko zezen bat askatu zuten dantzari artean. Batez ere mozkortuta zeudenek ezusteko handia hartu zuten. Dantzaldia gauerdian bukatzen zen. 1906an su artifizialak egon ziren ere. Hurrengo egunean, Done Errokeko zelaietan ganadu feria ospatzen zen; goizeko meza eta arratsaldeko dantzaldiarekin bukatzen ziren jaiak, besterik gabe. Denak nahiko kaltegabea dirudien arren, batzuetan iskanbilak sortzen ziren. 1904an, gazte batzuen arteko liskarra egon zen, laban eta guzti. Gainera, gauean, atari batean lo zegoen soriar bati kriston jipoia eman zioten, eta zeukan diru eskasa lapurtuz.

# Karroza lo
# jaietako k
# urte askot




25 urte zurekin
Aialur
Ingeniería de montes, topografía y medio ambiente
Tel. 945 89 02 56 Fax. 945 89 23 24
> Obrazko topografia
> Lur-sailetako neurketak
> Mugarriztatze eta mugaketak
> Ingurune inpaktuen ebaluazioak
> Ingurune proiektuak
> Baso jasangarrientzako planak
> Proiektu eta aktibitate lizentziak nekazaritza eta abeltzaintzako ustiapenetan
> Pinudien tasazioa
> Balorazio eta tasazioak
Maskuribai Industrialdea, Pab. B-03/ B-10
AMURRIO (Araba) aialur@aialur.com

# ehiaketa, uadrillen arteko tako ohitura



Tradizio handiko ekitaldia da kuadrillek antolatzen duten karroza desfilea. Duela 50 urte baino gehiago hasi zen ohitura. 1968. urtean eraiki zuten lehen karroza Dantza Lagunak taldeko kideek, eta ekimena errotu egin da herrian.







**Argazki gehiago Aiaraldea.eus atarian ikusgai**



# Bakailaoa pil-pil erara

## German Urruela
Amurrioko bakailao txapelketako epailea



## OSAGAIAK
**(8 lagunentzat):**

- 2,2 kilo bakailao
- Oliba olio birjina estrako litro bat Garraztasun gradu batekoa)
- Baratxuri gorriko 30 hagin
- Buztinezko kazola
- Xiringa
- Edalontzia
- Baldea
- Toallak
- Trapuak
- Koilara eta sardexka
- Kazola (oliorako)

## PRESTAKETA:

**1)** Bakailaoa ur-balde batean sartu 48 orduz hozkailuan (6-8 gradura). 8 orduro ura aldatu behar da. Lehen ur aldaketa egiten denean ezkatak eta hezurrak kendu. Oharra: Bakailao xerrak meheak badira 36 ordurekin nahikoa izan daiteke.
Behin 48 orduak igarota bakailaoa uretatik atera eta eskutrapu edo toalla batzuetan bilduta utzi, bandeja batean, hozkailuan, kozinatuko den egunera arte.

**2)** Olioa kazola batean jarri baratxuriekin batera. Baratxuriak sueztitu behar dira, baina ahalik eta geldoen (50 minutu inguruko prozesua da). Noizbehinka mugitu egin behar dira erre ez daitezen. Behin sueztituta, baratxuriak oliotan utzi kazolan, tapa gainean jarrita (koilara batekin zirrikitu bat irekita utzita).

**3)** Buztinezko kazolaren azalera guztia baratxuri gordin batzuekin igurtzi behar da. Behin hori eginda, bakailao zatiak gurutze forman kokatu behar dira, azala gorantz begira dutela. Ondoren, beste kazolan baratxuriekin dagoen olioa hartu eta buztinezkoan sartu behar da, iragazita, likidoak arrain zatiak estali arte.

**4)** Sardexkarekin bakailao zatiak mugitu , euren azpian ere olioa sartu dadin.

**5)** Kazola ezin da sutan zuzenean jarri, apurtu egingo litzatekeelako. Plantxa batean jartzea da egokiena, beroa kazolaren azalera guztian berdin barreiatu dadin.

**6)** Su erdira jartzen da kazola. Lehen olio-burbuila agertzen denean sutik kendu behar da eta 10 minutuz utzi behar da tapa jarrita duela eta toalla batekin estalita.

**7)** Ondoren, berriz jarri behar da sutan. 15-16 olio-burbuila agertzen direnean berriz kendu behar da eta aurreko prozesu bera errepikatu, beste hamar minutuz.

**8)** Kazola suan hirugarren aldiz jartzerakoan olioa “harro” jarri arte itxaron (irakiten hasi baino lehen gertatzen den egoera).

**9)** Une hori iristen denean sutatik kendu eta tapa eta toalla jarri berriz.

**10)** Beste hamar minutu igaro ostean, tapa ireki. Kazolaren erdian dagoen bakailao zatia altxatu eta behean dagoen ura xiringa batekin kendu behar da. Ur hori baso batean jarri behar da, gero erabiltzeko (baso bete ur atera daiteke dagoen ur guztiarekin). Ondoren, arrain xerra berriz bere tokian jarri behar da.

**11)** Kendutako ur hori platerari gazitasuna eman edo kentzeko baliatu daiteke. Bakailaoak gatz gehiegi badu urari azukrea gehitu eta berriz kazolara isuri. Arraina geza baldin badago, aldiz, urari gatza bota eta prozesu bera burutu.

**12)** Ondoren, bakailao zatia berriz bere tokian jarri. Kazola kontu handiarekin mugitu, alde batera eta bestera, 20 minutuz. Modu horretan gelatina aterako da. Ondoren, sueztitutako baratxuri politenak hautatu eta bana jarri arrain zati bakoitzaren gainean.

# 08.17
## LARUNBATA

**6:30 Gosaria eta San Rokera kalejira**
Koadrilek antolatutako ekintza, Jai Herrikoien Aldeko Batzordearen egitarauaren barruan

**10:00-15:30 eta 17:00-19:30 San Rokeko zelaira joan eta etortzeko doako autobusa**
Gasolindegitik autobusa ordu erdiro irtengo da. Geralekuak: elizako biribilgunea eta San Jose Eliza. San Roketik azken irteerak 15:00etan eta 19:00etan izango dira

**9:00 XLIII. Pil-pil erako Bakailao eta XX. Patata tortila txapelketen izen ematea**
San Roken

**10:00 Elexazarrera irtenaldia**
San Roke baselizatik, Juanjo Hidalgoren gidaritzapean

**11:30 Meza nagusia**
San Rokeko zelaian, Mariaka Abesbatzarekin

**12:30 Ardiei era tradizionalean ilea mozteko erakustaldia**
San Roken



**12:30 Patata tortilen aurkezpena**

**13:00 Bakailao kazolen aurkezpena**

**14:30 Txapelketen sari banaketa**

**14:30 Senidetasun bazkaria**
Prezioa 1,50 eurokoa izango da



**16:00 Erromeria OROTS**
San Rokeko zelaietan

**14:30 Haurrentzako antzerkia “KALEAN OTSO, ETXEAN USO”**
San Anton plazan

**20:00 Kale antzerkia “ENVÁ”**
Juan Urrutia plazan

**21:30 Ikuskizuna “LOS HITS DE TU VIDA”**
Juan Urrutia plazan

**22:30 Musika animazioa**
Betijai Fanfarrearekin

**23:30 Iguarrakoaren agurra egiteko desfilea**
Andra Mariaren elizatik Juan Urrutia plazaraino

**00:00 Jaien amaiera**
Jarrian disko-festa egongo da 80 eta 90 urteetako musikarekin

RESTAURANTE BIDEKO
Tradizioa eta abangoardia
HISTORIAZ ETA GASTRONOMIAZ BETETAKO XVII.MENDEKO AIARAKO BASERRI OSPETSUA

T. 945 890 633 LEZAMA-AMURRIO
www.restaurantebideko.com • info@restaurantebideko.com

URAGORRI S.L
ITURGINTZA - BEROKUNTZA
GAS - AEROTERMIA
Dionisio Aldama 3, 14.lokala
01470 Amurrio
adm.uragorri@gmail.com
Tel: 945 041 395
671 624 250
654 056 953

## LARRABEKO JAIAK

# 08.24
## LARUNBATA

**10:00 Txupinazoa**

**11:30 Meza**
Hilerriko kaperan

**12:00 Umeentzako puzgarriak**

**12:00 Patata Tortila Txapelketa**

**13:30 Sari banaketa, tortilen aurkezpena eta tarta baten zozketa**

**16:00 Umeentzako puzgarriak**

**16:30 Umeentzako jolasak eta zumba Zin Dancersekin**

**18:30 Txokolate jana**

**19:00 Igel joko txapelketa**
Izen emateak 1 euro balioko du

**20:00 Bocabeats Komedia**

**21:30 Bokatak**

**21:30 Kontzertuak**
**SABIN GUARESTI**
**JUMAS BAND**

## ALORIAKO JAIAK

# 08.29
## OSTEGUNA

**7:30 Jaien hasiera**

**12:00 Meza Santua**

**13:00 Euskal dantzak**
Erauntsi dantza taldearekin



**15:00 Herri bazkaria**

**16:30 Alboradak**



**17:00 Mus txapelketa**
Lehen saria 300 euro, bigarren saria 150 euro, hirugarren saria 90 euro eta laugarrena 60 euro

**18:30 Haur jolasak**

**23:00 Berbena**
**JOSELU ANAYAK**

**03:00 Kontzentrazioa: Milia kantzontzilotan**

**03:00 DJ MENDJA**

# 08.30
## OSTIRALA

**7:30 Kanpai hotsak eta suzirien diana**

**13:00 Hildakoen meza**

**15:00 Herri bazkaria**

**18:30 Puzgarriak, zezen mekanikoa eta apar festa**



**21:30 Parrillada**
Tiketak 2,5 euro balioko du

**22:30 Disko festa**
BAK Produccionesen eskutik

**3:30 DJ Karrifest**


berriak
supermerkatuak

ETXEZ ETXEKO
BANAKETA

Zumalakarregi etorbidea, 12-behea
946 726 417
LAUDIO

Intxardui, 2A-2B
945 066 355
AMURRIO


Mugikorrarekin ordaindu.
Txartelak piztu eta itzali.
Zure banku guztiak ikusi, Kutxabank app-etik.
Urrunetik izenpetu.
Maileguak berehala jaso.
Saldoak ikusi, ordainagiriak ordaindu eta transferentziak egin.
Zu hara, gu bertara.
Kutxabank mugikorrean.
ERRAZ HURBIL ORAIN
KuTXaBaNKPaY
Kutxabank, SA. Kale Nagusia, 30-32, 48009 Bilbo.
IFK: A95653077. Bizkaiko Merkataritza Erregistroan inskribatuta.
5226 Tomoa, 0 Liburua, BI-58729 Orria, 1 Folioa, 1. Inskripzioa.

## BARANBIOKO JAIAK

# 09.06
## OSTIRALA

**14:00 Erretiratuen bazkaria**
Garrastatxuko txosnan

**17:00 Briska txapelketa**

**18:00 Mus lehiaketa**

**18:30 Txupinazoa**

**20:00 Odoloste jana**
Pintxoak 1 euro balioko du

**20:30 Kontzertua**
**GWA YA**



# 09.07
## LARUNBATA

**11:00 Paella txapelketaren izen ematea**
Haragizko paella izango da

**12:00 Meza Garrastatxuko baselizan**

**13:00 Dantza erakustaldia**
Ubixeta dantza taldearen eskutik



**14:00 Paellen aurkezpena**

**14:30 Paella lehiaketako sarien ematea**

**16:00 Txirrindularitza lasterketa**
Baranbion, amaiera 18:00-18:30 aldera izango da Garrastatxun

**21:00 Dantza plaza**
**PATXI PEREZ**
Herriko plazan

**23:30 Kontzertua**
**OBANEUKE**

# 09.08
## IGANDEA

**12:00 Meza**
Garrastatxuko baselizan

**12:30 Kontzertua**
Ondorengo musikariekin: Miguel Etxebarria (tenorea), Maria Perera Deleuze (piano jolea), Henri Laborde (soinu jolea) eta Beñat Chaubadindeguy (atabala)

**17:00 Amurrio Kanta Taldea**

**17:00 Kalaka**
Umeentzako jokoak

# 09.10
## ASTEARTEA

**11:30 Meza Baranbion**

**12:00 Kontzertua**
**KHANTORIA**
Hari instrumentuen kuartetoa

**13:30 Pintxo potea**

## LEKAMAÑAKO JAIAK

# 09.28-09.29
## LARUNBAT-IGANDEA

**Oraindik ez dute egitaraua guztiz itxi, baina zer egongo den aurreratu dute. Bi egunez luzatuko da festa eta ondorengo ekintzak burutuko dira, besteak beste: odoloste dastatzea, haurrentzako puzgarri eta autoak, berbena, meza eta tortila txapelketa.**







# LAUDIOKO jaiak

ABUZTUAREN 15ETIK 25ERA




*Sanrokeak heldu dira. Gora San Roke!*



**ANDER AÑIBARRO MAESTRE**
LAUDIOKO ALKATEA

Egun hauetan nabari da nola hedatzen ari den jai kutsua Laudion, nola prestatzen den guztia eztanda bat jasotzeko: alaitasunezkoa, adiskidetasunezkoa, elkarrekin topatzekoa, beste urte batez batzen gaituen guztia partekatzeko zorionekoa.

Nire lehen mezua esker on zintzoa adierazteko da, bereziki jai-egitaraua osatzen duten ekitaldiak hilabete batzuk lehenagotik prestatzen eta antolatzen dabiltzan elkarte, jai-talde eta abarrei. Horiek gabe ezingo litzateke gozatu hain egitarau osatua, erakargarria eta, batez ere, guztiona.

Jai-taldeen eta elkarteen lana ez ezik, garrantzitsua da gutako bakoitzarena, berdin nagusi, txiki zein gazte izan. Gure partaidetza, alaitasuna eta umore ona direlako betidanik gure jaiak handi egiten dituztenak.

Baina ez dugu ahaztu behar, aldi berean, gure jaiak topagunerako lekua izan behar dutela, errespetu eta tolerantziarakoa, elkarbizitza sanoan gozatzeko espazioa eta, batez ere, uneoro gogoan izateko EZ, BETI DA EZ mezua. Soilik horrela jarraitu ahalko dugu hazten eta handitzen herri gisa.

Amaitu nahiko nuke, ongietorria egiten egunotan Laudiora hurbilduko diren pertsona guztiei. Espero dut gure jaiez gozatzea.

LAUDIO UDALA
AYUNTAMIENTO DE LLODIO

# RUPERTO URKIJO bolatoki kluba



RUPERTO URQUIJO BOLATOKI KLUBEKO KIDEAK DIRA JUAN ANTONIO GAYA HERNANDEZ (LAUDIO, 1940) ETA JOSE LUIS SANCHEZ GARCIA (LAUDIO, 1958). KLUBA IZANGO DA AURTENGO LAUDIOKO JAIETAKO PREGOILARIA.

## *“Pregoia aukera ona izango da bolo-jokoa ezagutzera emateko”*

**Laudioko jaietako pregoilari izatea egokitu zaizue. Pozik?**

*Jose Luis Sanchez Garcia:* Urtarrilean jaso genuen albistea, eta apur bat harrituta geratu ginen, abuztuan pregoilariak izango ginela pentsatzean. Baina gero oso ondo, martxa hartzen joan ginen. Imajinatzen genuen klubak zuen historia eta ibilbideagatik aukerak genituela pregoilariak izateko. Udalari eta jai batzordeari eskerrak eman dizkiogu gu hautatzeagatik. Jai bereziak izango dira aurtengoak guretzat. Aukera ona izango da laudioarren artean bolo-jokoa ezagutzera emateko.

**Gutxi falta da jaietarako. Baduzue pregoia prestatuta?**

*Sanchez Garcia:* Bai, badugu testua prestatuta. Oraindik ez



dugu pregoiaren ekitaldia bera nola egingo dugun pentsatu. Pertsona bat egongo da testua gazteleraz irakurriko duena, eta beste bat euskaraz irakurri duena. Hori da zehaztuta dugun gauza bakarra. Ez da oso pregoi luzea izango. Klubak aurrera egin dezan lan egin duten pertsonei eskerrak emateko baliatuko dugu ekitaldia. Bi pertsona izango ditugu bereziki gogoan. Hemen gurekin dugun Juan Antonio Gaya Hernandez da horietako bat. Bera izan da 35 urtetan klubaren presidentea.

*Juan Antonio Gaya Hernandez:* Gauza bat izan behar da kontuan. Arloteen lehen belaunaldikoa naiz ni, eta egun arloterik nagusiena ere banaiz. Arloteak izan ginen bolo-jokoan hasi ginenak, 1966. urtean.

**Betidanik egon izan al da bola jokorako afizioa?**

*Gaya Hernandez:* Bazeuden bolatokiak. Altzarrateko bolatokia zen erabiliena, Villosan zegoena. Baina fabrika handitu zenean kendu egin zuten gune hori. Aretan, Santa Luzian, San Juanen... ere bazeuden mota horretako espazioak. Aldai plaza dagoen tokian ere bazegoen bat. Gardean, ordea, hiru. Pribatuak ziren denak, Altzarratekoa salbu.

*Sanchez Garcia:* Bolatoki horretan hasi zen Eskualdeko Ruperto Urquijo Txapelketa jokatzen. Aurten 55. edizioa egingo dugu. Norgehiagoka berezia da, eliminazio sistema baten bidez funtzionatzen duen bakarra baita.

*Gaya Hernandez:* Ruperto Urquijo Klubak 1980. urtean du jatorria. Lehenago Arloteak eta beste talde bat zeuden. Beste talde hori ez zegoen “Arlote” izenarekin konforme, eta euren kabuz antolatzen zituzten gauzak. Baina baten batek ideia on bat izan zuen: dena batu eta fusionatzea eta klubari “Ruperto Urquijo Bolatoki Kluba” izena jartzea. Ni neu arloteen garaiko klubaren presidentea nintzen, eta talde berriko buru izatera pasa nintzen gero. Aurten San Rokeko Bolatoki Sari Handiaren 48. edizioa ospatuko dugu, Laudioko jaietako Baserritar egunean.

**Zer nolako funtzioa bete dute bolatokiek Laudioko jaietan?**

*Sanchez Garcia:* Lehenago komentatu nahiko nuke beste bi bolatoki egon zirela Larrazabalen: Isusikoa eta Gastakakoa. Hor garatu genuen kirol honekiko zaletasuna klubean gaur egun gauden gehienok. Hortik abiatuta hasi ziren inguruko herrietan ere bolatokiak sortzen. Horregatik, jai bat dugun bakoitzean eskualdeko beste herrietako jendea ere bertaratzen da, 60-70 lagun inguru biltzeraino.

*Gaya Hernandez:* Aiarako bolo-jokoaren ekintzen egutegia oso betea dago. Urteak 52 asteburu baldin baditu, guztietan daude norgehiagokak, bostetan izan ezik.

*Sanchez Garcia:* Egutegia estua da. Aste Santua eta Gabonak kenduta, astebururo daude kirol hau praktikatzeko zitak eskualdean.

*Gaya Hernandez:* Gabonak baino lehen lau eguneko txapelketa dago Kexaan, gainera. Izugarria da. Momentuz badugu horrelako egutegia aurrera ateratzeko gaitasuna. Espero dugu instituzioen eta bestelako erakunde zein norbanakoen laguntza jasotzea hau galdu ez dadin.

Enegarrenez esango dut: bolo-jokoa kultura gisa ulertu behar da. Niretzako Aiarako bolo-jokoa Aiarako Kuadrillari erabat lotuta dagoen kirola da. Penagarria litzateke instituzioen erruz galtzea. Pilota baino askoz lehenagokoa da bolo-jokoa. Bolatoki asko zeuden Aiaraldean, eta orain oso gutxi daude.

**Zergatik?**

*Gaya Hernandez:* Bolatokietako asko taberna edo txakolindegi baten parte ziren. Gardean badago Zubiaur Ibarretxe sendiarena zen bolatoki bat. Gaur egun itxita dago. Ruperto Urquijo bertara joaten zen jokatzera. Hortik dator Vamos a Gardea abesti ospetsua. Abesti hori kantatuko dugu abuztuaren 14ko pregoiaren irakurketan.

*Gaya Hernandez:* Garai batean bolo-eskola bat sortu ahal izan genuen, Laudioko Institutuarekin elkarlanean. Zentroak bazuen jarraitzeko asmoa, baina hemen ez dugu kidego nahikorik eskola egiteko.

Nik uste dut behetik sartu behar dela, oinarritik. Badakigu kirol honek ez duela profesional mundura salto egiteko aukerarik ematen. Izango balu ehunka lagun egongo lirateke praktikatzen.

*Sanchez Garcia:* Laudio Ikastolak eskolaz kanpoko ekintza gisa jarri zuen iaz bolo-jokoa, baina ez zen inor inskribatu. Berriro jarriko dute aurten. Klubaren egungo zuzendaritzarekin Laudion lau udal-bolatoki egotea lortu dugu: Gardeakoa, San Joanekoa eta San Rokeko biak.



# 08.14
## ASTEAZKENA

**19:00 Pregoiaren irakurketa**
Herriko plazan egingo da, Ruperto Urquijo bolatoki taldearen eskutik. Ondoren, Arloteek abestuko dute

**00:00 Sorginen txupinazoa**
Sorginak taldearen eskutik, Herriko plazan

# 08.15
## OSTEGUNA

**08:30 Aire zabaleko XXIII. Pintura Lehiaketa**
Ikusi oinarriak Laudio Udalaren webgunean

**10:00 Herri gosaria**
Batzalarrin kalean, Jaiak Koordinakundeak antolatuta

**10:00 Kuadrilla historikoen topaketa**
Zubiaur kalean. Jarraian Kalejira egongo da herrigunean zehar, Akelarre fanfarrearekin

**12:00 Txupinazoa**
Herriko plazan, Kuxinak Tripotxan taldeak piztuko du suziria; kalejirari ekiteko gero

**13:00 Ruperto Urkijori omenaldia**
Lamuza plazan izango da. Jarraian, kantu kalejira egongo da, Arloteen eskutik

**13:00 Txosnagunearen irekiera eta "Urrezko Katxia" ematea**



**13:00 Disko dantza**
Alberto Acero plazan

**13:00 Ogitarteko zein talo salmenta, eta musika**
Kuadrilla historikoen eskutik

**14:00 DJa**
Zubiko Kurajo kalean

**15:30 Kontzertua HOTEL RUIDO**
Kuadrilla historikoekin

**14:00-18:00 Erromeria TXIMELETA**
Txosnagunean. Ondoren, kalejira egongo da herrigunean zehar, Jaiak Koordinakundearen eskutik

**17:00 Eski-taula txapelketa**
Zubiaur kalean, Jaiak Koordinakundeak antolatuta. Txoripanak banatuko dira

**18:30 Aire zabaleko XXIII. Pintura Lehiaketaren sari banaketa**
Herriko Plazan

**19:00 Antzerkia "PROZAK"**
Malas Compañias taldearen eskutik, Pergolan

**19:00-21:00 Animazioa**
Beti Jai fanfarrearekin

**21:00 Kontzertuak ERTZAK**
Herriko Plazan

**22:00 Kontzertua AKERBELTZ**
Txosnagunean, Txosna Batzordeari esker

PASTELERÍA
MAESTRO ELORZA, 5 LAUDIO - Tel. 946 720 539
Quintana
ONDO PASA JAIETAN!
Jaietan abuztuaren 23tik aurrera zabalik!

Gozo-toki
Alberto Acero, 5 LAUDIO
94 672 10 08



egoki
FISIOTERAPIA OSTEOPATIA
Jai zoriontsuak!
· Fisioterapia funtzionala · Osteopatia ·
· Masaje terapeutikoa · Drenaje linfatikoa ·
· Bendaje funtzionala eta Kinesiotape ·
· Etxez etxeko zerbitzua ·
· Elikaduraren inguruko jarraibideak ·
Maestro Elorza Kalea 5, Laudio (tren geltokitik hurbil)
T 945 561 951 · M 605 446 628










AUTOBUSES ONIEVA

**Informazioa eta erreserbak:** 94 672 64 45
**Larrialdiak:** 619 76 66 51

71 eserleku arteko autobusak

Ondo pasa jaietan!

www.onieva.com
onieva@onieva.com

Yaso

JASONE MEABE
Masaje zentrua
Terapia alternatiboak
Estetika
Baias 7, Laudio 688 696 619

BELÉN ANDRÉS
Psikologia eta Mindfulness
665 714 596

IZA ascensores

Marka anitzeko igogailuen mantentze-lanak.

Berehalako erantzuna.

Hurbileko arreta, pertsonalizatua.

www.izaascensores.es 94 672 21 52

# KUXINAK kuadrilla

IAZ ANTOLATU ZUEN KUXINAK KUADRILEN EGUNEKO BAZKARIA AZKENEKO ALDIZ. AURTEN TXUPINERO IZATEA EGOKITU ZAIE TALDE HORRETAKO KIDEEI, AZKEN URTEETAN EGIN DUTEN LANAREN AITORTZA GISA.



## *“Politikariak balkoitik at egon behar dira txupinazoan”*

**Kuxinak taldeko kideak izango zarete aurtengo txupineroak. Nola hartu duzue hautaketa?**

Duela sei-zazpi urte hasi zen txupineroa hautatzeko gaur egun erabiltzen den prozedura. Zozketa egin genuen talde guztien artean eta zerrenda bat osatu zen. Kuadrillak ezagutzera ematea da txupineroaren funtzioa, bestela jendeak ez dituelako taldeak ezagutzen eta ez daki zer egiten duten. Beno, hori eta pregoilariei ekitaldi publikoetara joaten laguntzea, bi ekitaldi aldi berean badaude pregoilariak ezin duelako bietara joan.

Gu azkenetarikoak ginen zerrenda horretan, baina paper hori galdu egin zen. Azken urteetan Jaiak Koordinakundearen bileretan erabaki izan da zein izango zen urte horretako txupi-




neroa. Guri aurten egokitu zaigu iaz antolatu genuelako Kuadrillen bazkaria azkeneko aldiz. Erretiro moduan hartu dugu, beraz (barreak).

**Kuadrillen eguneko indaba jana antolatzeagatik da ezaguna zuen taldea. Nola hasi zineten?**

Duela hogei urte baino gehiago sortu genuen taldea. Gure egiteko nagusia bazkari hori prestatzea izan da, baina kuadrillako kide batzuk ere Jaiak Koordinakundea kudeatzen aritu dira.

Hasiera batean ekintzetan parte hartzera mugatzen ginen. Baina ikusten genuen guk ere zer edo zer antolatu behar genuela. Kasualitatea izan zen dena. Bi urtean ez zen kuadrillen bazkaririk egin. Ñorrala taldeak bokata jana egin zuen horren ordez. Orduan guk pentsatu genuen zerbait egin behar zela bazkaria berreskuratzeko.

Zuriñerekin bildu ginen orduan. Sukaldari profesionala da bera, eta prozedura irakatsi zigun 500 pertsona baino gehiagorentzako otordua prestatzeko. Idatziz jaso genituen argibide guztiak. Modu horretan sortu genuen gaur egungo lagun arteko "biblia" dena.

Bazkaria egiten hasi ginenean konturatu ginen koadrilak batzeko beharra zegoela, bakoitzak ekintzak bere kabuz egiten zituelako. Ez geunden batere koordinatuak. Horrela sortu zen Jaiak Koordinakundea hainbat talderen artean. Batzen hasi ginen, guztion artean gauzak antolatzen, eragile berriak sortzen… 2005etik aurrera izan zen hori. Ordutik hona bazkaria egiten aritu gara.

Prozesua profesionalizatu egin dugu. Laguntzaile asko izan ditugu. Hasieran, Zainzuriak-eko kideak egon ziren. Malapartatuak taldekoak etorri ziren gero, eta azkenean hainbat kuadrilletako 20 pertsonen artean sortu genuen iaz arte egon den lantaldea. Erabat profesionalizatu gara, erabat optimizatua dago prozesua.

**Jaietako ikur bihurtu da bazkari hori. Nola lortu duzue?**

Eboluzio handia izan du. 300 pertsonentzako bazkaria egiten hasi ginen eta 700 herritarrentzako prestatzera iritsi gara! Baina nahiko zaila izan da. Urtero izan dugu udaletxearen traba, diru laguntza dela eta. Lehenengo urtean ez ziguten eskatu genuen diru kopurua eman, aurretik egiten zen "bokatadari" ematen zitzaiona baizik. Diru hori genuela ikusita, lehen aipatu dugun sukaldari profesionalari eskatu genion laguntza, prestaketa nola optimizatu ahal genuen jakiteko. Lagun bat genuen biltegi handi batean lanean eta osagaiak merkeago lortu ahal izan zizkigun. Ordutik etengabekoa izan da diru laguntzaren traba. Iazko bazkariko laguntza martxoan kobratu genuen. Dirua gure poltsikotik jarri behar izan dugu, eta hori oso gogorra da.

**Bazkaria egiteari utzita, etapa berri batean sartuko zarete Kuxinakeko kideak, ez?**

Berrogei urte ditugu jada, eta gehienok familia daukagu. Horrek asko mugatzen du hartu ditzakegun ardura kopurua. Ezin dugu nahiko genukeen bezainbeste egin. Agian hemendik hogei urtera, gure umeek 18 urte dituztenean -edo pixka bat lehenago- berriz abian jarriko gara.

Aurtengoa urte sabatiko moduan hartuko dugu, zer egiteko gai garen ikusteko. Hausnarketa bat egingo dugu gure burua birkokatzeko. Presentzia behintzat eskaini ahalko dugu jaietan, eta zer edo zer gehiago ere bai.

Aurten kuadrilla berriak sartu dira Jaiak Koordinakundean, ikusteke dago zer nolako bilakaera izango duten. 80ko hamarkadan jaien gorakada eman zen seguru asko, gainbehera etorri zen gero, 90oko hamarkada amaierako igoera iritsi zen arte. Jaiak Koordinakundearen sorrera izan zen inflexio puntua. Eta gero, berriz behera joan da giroa, baina orain badirudi gorantz joko duela berriz. Dena dela, ez da zertan prozesua errepikatu behar. Gaur egungo gazteen beharrak ez dute zertan garai batekoenak bezalakoak izan behar. Gustuak ere aldatu dira, bilakaera bat eman da eta emango da. Ikusiko dugu, guk kañak hartuko ditugu bitartean.

Elkarrizketa amaitu baino lehen beste gauza bat esan nahiko genuke: uste dugu balkoian pregoilariak eta txupineroak baino ez dutela egon behar. Politikariak eta lagunak udaletxe barruan egon behar dira. Hori da gure kuadrillak betidanik eskatu duena. Politikariak balkoitik at egon behar dira txupinazoan.

2019-20
matrikulazio epea
irailetik aurrera
zabalik

DRUMGORRI
ROCK SCHOOL
ESKOLA

Ukelelea
Bateria
Pianoa
Gitarra
Baxua
Kantu klasea

Ikaskin 5, Laudioko industrialdea (Laudio) Gardeako tren geltoki alboan · 699 88 35 63

# 08.16
## OSTIRALA

**08:00 Alborada**
Herrian zehar

**09:00 Txistularien kalejira**
Lankaietako Lagunak eta Ekin Joleak taldeen eskutik

**09:00 Rakataplaren karrozaren jaitsiera**
Gardeatik

**11:00 Diana auzoetan zehar**
Laudioko Gaiteroekin

**11:00 Meza Nagusia**
Lamuzako Done Petri parrokian

**11:00 Hasiberrientzako entzierroa**

**11:00 Familiagunea**
Txosnagunean

**11:30 Kuadrilla historikoen hamaiketakoa**
Zubiaur kalean

**12:30 Entzierroa eta bigantxak**
16 urtetik gorakoentzat

**12:30 Animazioa**
Laudioko Gaiteroekin

**12:30 Erraldoiketaren lehen kalejira**
Herriko Plazatik abiatuta, Sorginlarreni esker

**12:45 San Roke musika elkartearen kontzertua**
Aldai plazan

**13:00 Kuadrilla historikoen argazki ofiziala eta kalejira**
Elizako arkupeetan

**13:00 Erraldoien dantza**
Herriko Plazan. Umeentzako tailerrak ere egongo dira

**14:30 Herri bazkaria**
Gaztetxean

**14:30 Kuadrilla historikoen bazkaria**
Elizako arkupean, ondoren PLACTON taldearen emanaldia eta kalejira txistulariekin

**17:00 Erraldoi eta buruhandien ibilaldia**
Herriko plazatik, Bidasoako konpartsak, Galtzagorri eta Sorginlarren taldeekin















**18:00 Erraldoiketaren talde argazkia**
Herriko Plazan

**18:00 Herri kirolak**
Aldai plazan, Arrizkuzubikoekin

**18:00 Aurresku eta Fandango eta Arin-arin Lehiaketak**
Alberto Acero plazan, Itxarkundiaren eskutik

**18:30 Animazioa**
Laudioko Gaiteroekin

**19:00 Antzerkia**
**"PITI PETA HOFEN SHOW"**
Lamuza parkeko Pergolan, LPM konpainiarekin

**20:00 Kalejira eta barbakoa**
San Roke baselizatik, Zoroakek gidatuta

**20:30 Haurren festa**
**XAIBOR**
Zubiaur kalean

**21:30 Afari musikatua**
Txosnagunean

**21:30 Kontzertua**
**TIO TERONEN SEMEAK**
Alberto Acero plazan

**22:00 Jai tematikoa**
Aldai plazan Jaiak Koordinakundeak antolatuta

**22:00 Kontzertuak**
**KALEKO URDANGAK**
**KOP**
**TINKO**
Txosnagunean, Txosna Batzordearen eskutik

**23:30 Kontzertua**
**LA FUGA**
**FOISIS JAUNAK**
ITOIZen tributu taldea














# AZKENAK kuadrilla



LEIRE SANCHEZ, YAIZA GONZALEZ ETA LAURA CASTAÑOS (LAUDIO, 1997) AZKENAK KUADRILLAKO KIDEAK DIRA. AURTEN HASIKO DIRA TALDE HORRETAKO KIDEAK JAIAK KOORDINAKUNDEAREN BARRUAN EKINTZAK ANTOLATZEN. EZ DIRA BAKARRAK IZANGO: SORGINAK ETA ZEZENGORRI TALDEAK ERE SORTU BERRI BAITIRA.

## *“Parte hartze gehiago behar da jaietan, horretan arituko gara”*

**Zer dela eta erabaki duzue kuadrilla berria osatzea?**

*Laura Castaños:* Guk berez bageneukan koadrila osatuta.

*Yaiza Gonzalez:* Baina iaz jaietako ekintzetan gehiago parte hartu genuen eta gustatu zitzaigun. Horregatik, gure partetik zerbait emateko grina sortu zen, eta hemen gaude.

**30 pertsona inguru zaudete taldean. Nola bildu zarete?**

*Castaños:* Lau kuadrilatako kideak gara eta jaietan elkarrekin ateratzeko ohitura daukagu.

**Lau kuadrilletakoak izanda, nola antolatzen zarete?**

TOÑI ARRAINDEGIA
jai zoriontsuak!
Laudioko Abastos Azokan
toniarraindegia@gmail.com
94 672 81 34 • 621 21 65 98

etxaurre
higiezinen agentzia
Ondo pasa jaietan!!
Zumalakarregi, 38
01400 • Laudio
94 672 85 50
BEZEROARENTZAKO ARRETA
• Pisuak
• Txaletak
• Lokalak
• Lursailak
• Balioespenak

*Castaños:* Kuadrilla bakoitzetik bozeramaile bat izaten saiatzen gara, baina batzuetan ezinezkoa da. Batzuk ikasten daude, beste batzuk lanean...

**“Azkenak” izena jarri diozue kuadrillari, zer dela eta?**

*Leire Sanchez:* Polemika handia izan dugu izenarekin gure artea, ez ginen ados jartzen. Bi izen genituen eta azkenean beste bat aukeratu dugu. "Azkenak" deitzen gara “azken kuadrilla” garelako eta azkenak garelako beti etxera bueltatzerako orduan ere.

**Jaiak Koordinakundean sartu diren azkenak zarete. Aspaldi ez dela eragile horretan talde berririk sartzen. Zergatik dela uste duzue?**

*Sanchez:* Jaiak iristen direnean gozatzera mugatzen gara sarritan. Ez zara pentsatzen jartzen ea nork eta zergatik antolatzen dituen ekintzak eta zer gertatuko litzatekeen ekintzak antolatzeari utziko baliokete.

*Gonzalez:* Oso erosoa da ekintzetara ikusle moduan soilik joatea. Ekintzak antolatzen dira eta zuk bertan parte hartzen duzu, eta dena da oso polita eta dibertigarria. Baina kuadrilletako kide asko nagusitzen ari dira, eta eurek antolatzen ez badituzte, nork antolatuko ditu?

**Zuek nola parte hartuko duzue aurtengo jaietan?**

*Sanchez:* Bi ekintza egingo ditugu. Txoripanak banatzea izango da horietako bat (barreak). Bestea, Kulero eta Galtzontzillo lasterketa.

*Gonzalez:* Berrikuntzak sartuko ditugu proba horretan, ikusgarriagoa izan dadin. Azken urteetan hiru buelta eman zaizkio ibilbideari erakustaldi moduan eta amaierako esprinta zegoen gero. Hainbat jolas eta jarduera egingo ditugu hasierako hiru itzuli horietan, dibertigarriagoak izan daitezen.

**Zer da, zuen ustez, Laudioko jaiei falta zaiena?**

*Gonzalez:* Parte hartze gehiago behar da. Batzuetan ekintzak apur bat pobre geratzen dira, jendea ikustera soilik bertaratzen delako.

**Prest dituzue logoa eta jantzia?**

*Gonzalez:* Gure izenari erreferentzia egiten dion logo bat izango dugu. Pegatinak egingo ditugu guretzat jaien erakusgarriak diren hainbat irudirekin, eta logoa jarriko dugu guztien gainean. Jantzia, aldiz, hori kolorekoa izango da: Gona loreduna eta amantal horia.

*Castaños:* Oihala Laudio eta Amurrion erosten saiatu ginen lehenbizi. Baina 30 pertsona garenez metro asko behar genituen. Horregatik, Bilbora joan ginen hamar oihal eredurekin. Horietako bizpahiru hautatu genituen, baina horietako bakarra lortu ahal izan genuen behar genuen kopuruan. Mutilen kasuan, jantzia beltza izango da, gerrikoa horia eta zapia loreduna.

GO enea
ODONTOLOGIA
Jai zoriontsuak opa dizkizuegu!
Araba kalea 2, Laudio • 944 200 310

LAUDIO
comercio y ocio
Ondo pasa jaietan!
www.laudiocomercial.com

bebidas Serrano
Jaietan ere, zuekin!

KarrikA BARRIA
JATETXEA
Polg. Industrialdea. Pab. 4-4 Laudio
94 672 82 07
Jaietan ere Karrikara goaz!

AZOKA
Giro lasaiaz eta konbinatu paregabeaz gozatu.
Mundu osoko artisau-garagardoak
Kafe karta: frappeak, smoothiak, irabiaki naturalak...

Alberto Acero enparantza 13 (Laudio) 94 672 42 13

# 08.17
## LARUNBATA

**08:30 Arrautzopil eta Untxi gisatuaren XLII. Lehiaketa**
Rakatapla taldearen eskutik, Aldai plazan



**09:00 Kalejira**
Lankaietako Lagunaken eskutik

**10:00 XXX. Laudio Saria: Pablo Bilbao Memoriala**
Zumalakarregi etorbidean



**11:00 Diana**
Laudioko Gaiteroekin

**11:00 Hasiberrientzako entzierroa**

**11:00 Familiagunea**
Txosnagunean

**12:00 Meza**
Lamuzako Done Petri parrokian

**12:00 Kalejira**
San Roke Musika Elkartearekin

**12:30 Bertso saioa**
Txosnagunean

**12:30 Entzierroak eta bigantxak**
16 urtetik gorakoentzat

**12:30 Animazioa**
Laudioko Gaiteroen eskutik

**12:30 Umeentzako ikuskizuna**
Txosnagunean

**13:00 Kontzertua VOCES NAVARRAS**
Rakataplak gidatuta

**13:00 Antzerkia "MULES"**
Lamuza parkeko La Pergola espazio eszenikoan

**14:00 Nagusien omenezko bazkaria**
Izen-emateak: abuztuaren 1etik 9ra, udaletxeko beheko solairuan (HAZ)
Horren ostean dantzaldia egongo da Belle eta Blue taldearekin



**14:30 Herri bazkaria**
Txosnagunean. Txilardiaken eskutik

**16:00 Bingoa**
Txosnagunean, Itzelakek dinamizatuta

**17:00 Erraldoi eta buruhandien kalejira**
Lankaietako Lagunak taldeko txistularien zein Laudioko Gaiteroen laguntzarekin

**17:00 Saskibaloia**
Institutuan, Sugarrakekin

**18:30 Animazioa**
Laudioko Gaiteroen eskutik




**19:00 Kluedo-poteoa eta txaranga**
Jaiak Koordinakundeak antolatuta

**19:00 Antzerkia “CULBUTO”**
Lamuza parkeko La Pergola espazio eszenikoan. Mauvais Coton antzerki taldearen lana

**21:00 Afari musikatua**
Txosnagunean

**21:00-23:00 Musika emanaldia DJ RUBA**
Zubiaur kalean

**21:30 Kontzertua PURO RELAJO**
Alberto Acero plazan

**22:00 Kontzertua**
Txosnagunean

**23:00 Zezensuzkoa**
Herriko Plazan

**23:30 Kontzertuak MODUS OPERANDI OXABI ERROMERIA**
Herriko Plazan

JAIETAKO BIZIPENAK



# Txani Rodriguez

IDAZLEA

## Jai idealizatuak

Seda deituriko nobelak hurrengo istorio hau kontatzen du: zeta-harrak saltzen dituen frantziar batek Japoniara bidaiatzen du kalitatezko harrak erosteko. Bere bidaietan emakume japoniar baten begi misteriotsuez maitemintzen da. Frantziara itzultzen denean, saltzaileak nagusia eta emaztea zain dauzka, eta andreak gizona aldatuta ikusten du. Bere maitasun istorioa platonikoa da erabat, irreala, baina Frantzian duen bizitza, aldiz, erreala da. Emaztea konturatzen da ezinezkoa dela fantasma baten kontra borrokatzea eta, horren ondorioz, erabaki bat hartzen du. Alessandro Bariccoren liburu goxoegi hori aipatu nahi dut urteetan zehar niretzat Laudioko jaiak platonikoak izan direla azaltzeko, nolabait. Saltzaileak emakume japoniar hura idealizatuta bazuen, nik, Laudioko jaiak idealizatzen nituen.

Udaro legez, nire gurasoak Andaluziara eramaten ninduten. Oso uda onak igaro ditut Malagako herrixkan, egia esan. Baina nerabe bilakatu nintzenean Laudioko jaiak bizitzea nolakoa izango zen galdetzen nion neure buruari. Laudiora itzultzen ginenean, Odoloste Egunaren ostean, feriako txosnek zirauten, eta nik irudimenari eusten nion jaietako sekuentzia luze bat osatzeko. Heldu bilakatu nintzenean, jaiak bizitzeko aukera izan nuen. Gau ahaztezinak gordetzen ditut memorian, bai eta egun ederrak ere –eta etorriko direnak, espero-, baina Laudioko jaiak ez dira inoiz hemen egoten ez nintzenean baino perfektuagoak izango niretzat: garai horretan Laudioko berbenaren musika milaka kilometrotan entzun zitekeen, sinets nazakezue.

babiotec® suministros
**Industriarako hornidura integrala**
*Jai zoriontsuak!*
babiotec@suministrosbabiotec.com / 945105479

KOMIKIA

# Jai herrikoiak aurrera!

## Aimar Gutierrez Bidarte




Pacivi
GLOCAL CONSULTING
JAI ZORIONTSUAK!
946 113 823
LAUDIO / Zumalakarregi etorbidea 30, Merkataritza-lokala
AHOLKULARITZA JURIDIKO INTEGRALA
MARKETIN
AHOLKULARITZA FISKAL INTEGRALA
TEKNOLOGIA BERRIAK
www.pacivi.com

# Untxia

## Gastrosuleize kuadrilla

Pablo, Angel, Josu eta Willy



## OSAGAIAK:

- Mendiko untxia
- Tipula zuria
- Tipula gorria
- Baratxuria
- Azenarioak
- Piper txorizeroa
- Porrua
- Tomate ondua
- Salda
- Oliba-Olio Birjina Extra
- Gatza eta pipermina
- Kennebec patata
- Ilarrak

## PRESTAKETA:

**1)** Aurreko egunean untxia garbitu eta zatitu behar da, eta marinatzen jarri. Gorritu untxia leunki, irinarekin eta gatza zein pipermінarekin. Behin hori eginda, albo batean utzi.

**2)** Barazkiak sueztitu juliana erara moztuta su motelean, aurretiaz egositako untxiaren barrenekin eta marinatuaren zukuarekin. Gure ukitu sekretua gehitzen dugu eta barazkiak ondo egiten uzten ditugu, zuku guztia ateratzeko. Baso bete ardo txuri botatzen dugu izerditzen hasten denean. Behin sueztituta dagoela tomatea gehitu (zurituta eta hazirik gabe) eta arin frijitu dena, su leunean.

**3)** Untxia jarri aurkezpenerako baliatuko den kazolan eta barazkiak gainetik bota, txinotik pasatuta. Egozten jartzen dugu motel-motel, eta salda gehitzen dugu eskatzen digun heinean. Koipea kendu beharrezkoa bada.

**4)** Patatak eta azenarioa gehitu. Ia puntuan dagoenean, ilarrak gehitu.

**5)** Gatz aldetik ondo dagoen ikusi, haragia puntuan dagoela ziurtatu, kazola garbitu, dena ondo kokatu, apaindu... eta aurkeztera!

ENKARKI
alquilamos soluciones vendemos servicios
Konponbideak alokatzen ditugu, zerbitzuak saldu
Ondo pasa jaietan!
Arza industrialdea, Laudio
www.enkarki.net 94 643 00 42

EUSKO ENERGIA S.L.
Iturgintza
Berokuntza
Gas
Aire girotua
Zoru erradiatzailea
Aerotermia
Energia berriztagarriak
Maskuribai poligonoa, Z-4
Amurrio
Tel. 945 890 825 / 627 400 739 / 615 780 263
www.euskoenergia.com

BERAKATZ EGUNA

# 08.21
## ASTEAZKENA

**09:30 Eskupilota partidak**
Lamuza pilotalekuan, Herriarenak taldearen eskutik

**10:00-14:00**
**Haurrentzako jolas parkea**

**10:30 XVIII. 3x3 Hockey Txapelketa**
Laudio BHIn, Ganbegi 6-2 Hockey Taldeak antolatuta

**11:00 Familiagunea**
Txosnagunean

**11:00 Xake partida bizkorrak**
Aldai plazan, Laudio Xake taldeak eta Basalarrina elkarteak gidatuta

**11:30 Sokaren hasiera**
Astoaren inguruan dantzan ariko dira partaideak. Herrigunean zenbait geldialdi egingo dituzte Untzueta Dantza Taldekoek



**12:30 Umeentzako disko dantza euskalduna**
Txosnagunean, Kirikiño aisialdi taldeari esker

**13:00 Sokaren amaiera eta aurreskua**
Herriko Plazan

**14:00 Herri bazkaria**
Lamuza parkean, Jaiak Koordinakundeak antolatuta. Aiaraldea Ekintzen Faktoriako elikadura burujabetzaren lan-ildoko kideek prestatuko dute otordua. Tokiko produktu agroekologikoak erabiliko dituzte horretarako

**16:00 Dantza plaza**
Ordago folk taldearen eskutik Lamuza parkeko bolatokian, Jaiak Koordinakundeak deituta

**16:30-19:00**
**Haurrentzako jolas-parkea**
Lamuza parkean

**17:00 Erraldoi eta buruhandien kalejira**
Ekin Joleak txistularien eta Laudioko Gaiteroen animazioarekin

**17:30 XXIV. San Roke Hockey Txapelketa Herritarra**
Gardeako Kiroldegian, Ganbegi 6-2 Hockey Taldeak antolatuta



**18:30 Animazioa**
Laudioko Gaiteroen eskutik

**19:00 Kantukada**
Lamuza parketik, Laudioko Txosna Batzordeak gidatuta

**20:00 Umeentzako berbena KANTU KOLORE**
Herriko Plazan

**21:00 Afari musikatua XABI BASTERRA**
Txosnagunean

**21:30 Kontzertua BILBAINADA GAUA, GAU PASA**
Alberto Acero plazan

**22:00 Zumba**
Txosnagunean













ZIGOR
RESTAURANTE
Irabien 22, Okondo

Jaietan topa egiteko gozatu gastronomia onena!

zigorokondo@gmail.com
620 200 083/649 337 772
@zigorokendo

LTS TALLERES
Driver
NEUMATICOS Y SERVICIOS
NEUMATIKOAK ETA ZERBITZUAK

MEKANIKA INTEGRALA – KAMIOIAK ETA AUTOAK

TORREZAR POL. IND. • OROZKO
TEL. 670 383 166 • ltstalleres@grupo-driver.com

KUADRILEN EGUNA

# 08.22
## OSTEGUNA

**10:00-14:00**
**Haurrentzako jolas parkea**
Lamuza parkean

**11:00 Familiagunea**
Txosnagunean

**14:00 Kuadrillen bazkaria**
Txosnagunean. Aiaraldea Ekintzen Faktoriako elikadura burujabetzaren lan-ildoko kideek prestatuko dute otordua, tokiko produktu agroekologikoak erabilita

**16:00 Laudio's Got Talent**
Txosnagunean, Jaiak Koordinakundeak antolatuta

**16:30-19:00**
**Haurrentzako jolas parkea**
Lamuza parkean

**18:00 Extreme Herri Kirolak**
Zezen plazan

**18:30 Animazioa**
Laudioko Gaiteroen eskutik

**19:00 Zaldi proben San Roke Txapelketa**
Udal probalekuan

**20:00 Kalejira Zo-Zongo taldearekin**
Zezen plazatik irtenda

**21:00 Bolero gaua**
**ALMA MEXICANA**
Alberto Acero plazan

**21:00 Afari musikatua**
Txosnagunean

**21:00-23:00 Musika**
**DJ MKI MUSIK**
Zubiaur kalean

**22:00 Kontzertuak**
**THE POTES + URRATS**
Txosnagunean

**23:30 Kontzertuak**
**ORQUESTA CASTING**
Herriko Plazan


mundiSalud
Clínica Dental

Zure irribarrearen zerbitzura lanean



· Neurrirako finantzaketa
· Kolektibo handiekin adostuta

ADITUAK
· Odontologia orokorra
· Kirurgia
· Ortodontzia
· Estetika
· Plasma
· PADI
· Inplanteak

BERRIKUNTZAK
· 3D Erradiologia
· Ortodontzia ikusezina

AMURRIO ETA LAUDIOKO AIALA MEDIKU-ZENTRO BARRUAN GAUDE

Amurrio
Iritxusi 4-6
945891469

Laudio
Zumalakarregi 3, behea
www.clinicadentalmundisalud.com 946721927








LAUDIOKO JAIAK 2019
Jai herrikoi
eta
parte-hartzaileen
alde!
Abuztuak 15,16,17, 21, 22, 23, 24 eta 25
JAiAk
Jaien Aldeko
Koordinakundea

# 08.23
## OSTIRALA

**09:00 Feria**
Aldai plazan, produktuen erakusketa eta salmenta

**10:30 San Roke Bola Lehiaketa Nagusia**
San Roke udal bolalekuan, Ruperto Urquijo Bolatoki Klubak antolatuta

**11:00-14:00 Pintxo gargantua**
Herriko Plazan

**11:00 Familia gunea**
Txosnagunean

**11:00 Hasiberrientzako entzierroa**

**12:00 Dantzak**
Zumalakarregi etorbidean Kilkerrak eta Itxarkundia taldeen parte hartzearekin

**12:00 Pintxo eta igel-toka txapelketak**
Batzalarrin kalean, Ardibeltz eta Basalarrina elkarteek antolatuta

**12:00-15:00 Animazioa**
Beti-Jai fanfarreak lagunduta herriko kaleetan barrena

**12:30 Entzierroa eta bigantxak**
16 urtetik gorakoentzat

**14:00 Herri bazkaria**
Elizako arkupean, Jaiak Koordinakundeak antolatuta



**17:00 Erraldoi eta buruhandien kalejira**
Galtzagorri Kultur Taldearen eskutik, Ekin Joleak txistularien eta Laudioko Gaiteroen laguntzaz. Eurekin batera La Colla de Castellers de Esplugues De Llobregat taldea ariko da



**17:00 Antzerkia**
Txosnagunean, Txosna Batzordeak antolatuta

**18:00-20:00 Pintxo gargantua**
Herriko Plazan

**18:30 Artzain Txakurren XXI. Lehiaketa eta Bixente Urkijoren omenezko Artzain Txakurren XV. Lehiaketa**
Ekitaldian zehar Onintza Enbeita eta Arkaitz Estiballes bertsolariek eta La Colla de Castellers de Esplugues De Llobregat taldeek emanaldia eskainiko dute

**18:30 Animazioa**
Laudioko Gaiteroen eskutik

**19:00 Antzerkia "VINTAGE BROTHERS"**
Lamuza parkeko La Pergola espazio eszenikoan, Circo Los konpainiaren eskutik






**19:00 San Roke Idi-probak**
Udal probalekuan, Lauzaldi Kirol Elkarteak antolatuta

**20:00 Kalejira**
Aldai plazatik abiatuta, Jaiak Koordinakundeak deituta

**20:30 Diskodantza**
**XAIBOR**
Zubiaur kalean

**21:00 Afari musikatua**
Txosnagunean

**22:00 San Roke Musika Elkartearen kontzertua**
Alberto Acero plazan

**22:00 Kontzertuak**
**SUSTERBAKS, SKABIDEAN ETA THE BLACK BIRDS, DANTZETAN JARRAI**
Txosnagunean

**23:00 Suzko zezena**
Herriko Plazan

**23:30 Kontzertuak**
**NOGEN**
**HUNTZA**
Herriko Plazan





# Protokoloa, salaketetarako telefonoa eta mobilizazioa prestatu ditu Mugimendu Feministak

**HAINBAT EKIMEN EGINGO DITU LAUDIOKO MUGIMENDU FEMINISTAK AURTENGO JAIETAN ERE. ERASO MATXISTEN AURKAKO PROTOKOLOA ETA SALAKETAK JASOTZEKO TELEFONOA JARRIKO DITUZTE MARTXAN, ETA MOBILIZAZIOA EGINGO DUTE BASERRITAR EGUNEAN.**




Aurten Aiaraldeko Mugimendu Feministarekin elkarlanean garatu dute plangintza. Eskualdeko protokoloa jarriko dute martxan, eraso zein jarrera matxistak salatzeko eta erasotuari babesa adierazteko.. Tresna bat baliatuko dute horretarako: telefonoa. 688752784 izango da zenbakia eta, jakinarazi dutenez, Laudioko jaietako egun guztietan egongo da piztuta 24 orduz, Aretako eta Amurrioko festetan bezala.

Horrez gain, mobilizazioa deitu dute "kaleak, jaiak eta gauak gureak dira" aldarrikatzeko. Baserritar egunean egingo dute hori, abuztuaren 23an, Txosnagunetik abiatuta.

Aurreratu dutenez, mobilizazio ezmistoa izango da, emakumeei* soilik bideratua. Oraindik ez dute ordua zehaztu baina laster egingo dute publiko informazio guztia.

**Zapia janzteko deia**

Aipatutako ekimenez gain, beste deialdi bat ere zabaldu dute. "Herriko emakume* guztiak animatu nahi ditugu txupinazoan eta jaietako beste egun guztietan martxoaren 8ko zapi morea soinean eramatera".

**Eraso matxistak salatzeko telefonoa 688 752 784**

BASARTE, S.L.
ERAIKUNTZAK ETA HONDEAKETAK
OBRA BERRIA
BERRITZEAK
35 urte baino gehiagoko esperientzia
Zeramika eraikuntza
LAUDIO/ basarteconst@telefonica.net
94 672 12 58 · 945 89 20 19 · 609 400 135

DRUM GORRI ARETOA
TXUPINAZOAN
TECHNOa
JAIETAKO EGUN GUZTIETAN
zuzeneko DJ-ak
INDUSTRIALDEA (Laudioko Santa Kurutze tren geltoki alboan)
Drumgorri Berrriro Aretoa Drumgorri drumgorriaretoa@gmail.com

# 08.24
## LARUNBATA

**11:00 Diana**
Herriko auzoetan zehar, Laudioko Gaiteroen eskutik. Horren ostean, kalejira herrigunean zehar

**11:00 Hasiberrientzako entzierroa**

**11:00-14:00 Pintxo Gargantua**
Herriko Plazan

**11:00 Familiagunea**
Txosnagunean

**12:30 Entzierroa eta bigantxak**
16 urtetik gorakoentzat

**12:30 Animazioa**
Laudioko Gaiteroen eskutik

**13:00 La Colla de Castellers de Esplugues De Llobregaten erakustaldia**
Aldai Plazan

**13:30 Bertso saioa**
Txosnagunean

**13:30 Txistularien XL. Alardea**
Elizako arkupean, Ekin Joleak taldeak antolatuta

**14:30 Herri bazkaria**
Txosnagunean

**16:00 San Roke Jaietako XII. Pasabolo Txapelketa**
Lamuza parkeko bolalekuan

**16:00 San Roke Jaietako Bola Joko Arabarraren XXI. Txapelketa**
Bola Joko Arabarraren kirol elkarteak antolatuta

**17:00 Erraldoi eta buruhandien kalejira**
Lankaietako Lagunak txistularien eta Laudioko Gaiteroen laguntzaz, eta La Colla de Castellers de Esplugues de Llobregat taldearekin batera

**17:00 Dantza plaza**
Txosnagunean

**18:30 Animazioa**
Laudioko Gaiteroen eskutik

**19:00 Antzerkia "HISTORIAS DE UN BAÚL"**
Lamuza parkeko La Pergola espazio eszenikoan, Trotamundos taldearen eskutik

**19:00-21:00 Pintxo Gargantua**
Herriko Plazan

**19:30 La Colla de Castellers de Esplugues de Llobregat taldearen erakustaldia**
Alberto Acero plazan.

**20:00 Musika animazioa Molto Vivace fanfarrearekin**

**20:00 Odoloste jana**

Tolo
Restaurant
Aldai enparantza, LAUDIO
672 23 50 65
www.tolobar.com
Eguerdietan tragoa eskatu eta pintxoa doan!
Jaietan egin gurekin topa!
ABUZTUA
16
SAN ROKE
20:00
LA BANDA DEL COWBOY


21
BERAKATZ EGUNA
20:00etatik aurrera
BERAKATZ-ZOPA SOLIDARIOA
Tabernako irabazien %10a Gurutze Gorrira zuzenduko da

25
KOFRAFIA EGUNA
20:00
COWBOY

JAIETAKO MENUAK

## ODOLOSTE EGUNA



**22:00 Kontzertua**
**MARIACHI MEXICO LINDO ¡SI SEÑOR!**
Alberto Acero plazan

**23:00 Suzko zezena**
Herriko Plazan

**00:00 Kontzertua**
**CAFE QUIJANO**
Herriko Plazan

**01:00 Galtzontzilo eta kuleroen XI. Lasterketa**
Alberto Acero plazan

**01:30 Kalejira**
Alberto Acero plazatik, Jaiak Koordinakundeak antolatuta

**02:00 Disko Dantza**
Txosnagunean

## JAIETAKO BIZIPENAK



# PAPÁ NDIAYE

Kale saltzailea

### Euskal Herriko festarik onenak

2003. urtean egon nintzen Laudioko jaietan lehenbiziko aldiz. Zeharo harrituta geratu nintzen: jende guztia oso pozik zegoen, bazeuden kalean lo egitera iristen ziren pertsonak ere... Herri honetako jaiak oso ondo daude. Asko gustatzen zait jendearen animoan ematen den aldaketa: herritarrak alaiago daude, gastu gehiago egiten dute... ni oso pozik aritzen naiz giroan murgilduta. Laudioko jaietan eguerdiko hamabietatik gaueko hamaiketara egin ohi dut lan. Lehen hiru egunak dira onenak, egun horietan saltzen dugu gehien. Odoloste egunak ere oso ondo funtzionatzen du, baina Txupinazo eguna da onena, dudarik gabe.

Laudion badago dirua gastatzeko ohitura ez duen jende asko, baina egun horretan bai, egiten dute. Betaurrekoak, eskumuturrekoak, lepokoak... jendeak mota horretako gauzak erosi ohi ditu jaietan, egun batean edo bitan jartzeko.

Urte ugari pasa dira, eta ohitura ere aldatzen joan da, jada ez da lehen zena. Apur bat lasaiagoak dira orain. Alabaina, bilakaera hori beste hainbat herritan ere jazo da. Beste toki batzuetako jaiak (Arrankudiaga edo Orozkokoak kasu) ere ondo daude, baina bertako herritarrei bideratuagoak daude. Laudiora, aldiz, beste toki batzuetako jende asko bertaratzen da. Niretzako, Euskal Herriko jairik onenak dira, eta uste dut aurtengoak oso ondo egongo direla.


HOTEL ORDUÑA PLAZA
**** Balneario





Hotela · Jatetxea · Bainuetxea · Gimnasioa · Ekitaldien antolaketa

Foru plaza, URDUÑA Tel. 945 56 90 38
www.hotelordunaplaza.com info@hotelordunaplaza.com

# KALEKO URDANGAK



**Noiz/non:** Abuztuaren 16an Txosnagunean

Uda potentea dute aurretik Kaleko Urdangak taldeko kideek. Taldea 2011. urtean sortu zen Bergaran. Geldiadi luze bat izan zuten gero, baina berriro indartsu itzuli dira agertokietara, abeslari berriarekin. Estudioan sartuta egon ziren iaz, eta hiru EP atera zituzten ."Nortasuna" izeneko lan luzea plazaratu zuten jarraian. Euren Oi! generoko musika entzuteko aukera egongo da abuztuaren 16an Txosnagunean.

# HUNTZA

**Noiz/non:** Abuztuaren 23an Herriko plazan

Ibilbide labur baina oparoa egin du Huntza taldeak. 2014. urtean sortu zuten Bilbon ikasten zebiltzan 6 gazte gipuzkoarrek. Handik gutxira ospearen olatura igo ziren "Aldapan gora" abestiari esker. Marka hori gainditzea zaila bazuten ere, arrakasta izan du euren azken lanak ere: "Xilema".



Saioa "Gauilunak"

# CAFE QUIJANO



**Noiz/non:**
Abuztuaren 24an Herriko Plazan

Huntza eta Kaleko Urdangakekiko antipodetan dagoen taldea da Cafe Quijano. Gaztela-Leoiko hirukoteak 1996an plazaratu zuen bere lehen maketa, eta rock latindar kutsuko musika egiten aritu dira orduz geroztik. Hamar lan plazaratu dituzte guztira. Azkena iaz aurkeztu zuten: "La vida no es la, la, la". Euren kanta ezagunenak abestuko dituzte Odoloste egunean.

# Odolosteak



## Ana Mari harategia

Laudioko odoloste txapelketako bost edizioetatik lau irabazi ditu.

### OSAGAIAK:

- Odol litro bat
- Arroz kilo 1
- Gantza
- Porru kilo erdi
- Tipula kilo erdi
- Pipermina
- Gatza
- Tripak

### PRESTAKETA:

**1)** Arroza bezperan egosi, gatzarekin. Behin egosita mahai batean zabalduta utzi.

**2)** Tipula eta porrua ere bezperan sueztitu.

**3)** Hurrengo egunean dena nahastu, masa bat sortu arte: arroza, tipula, porrua eta odola. Gantza gehitu, zati txikietan.

**4)** Gatza eta pipermina gehitu.

**5)** Tripei gatza kendu eta buelta eman. Masa tripen barruan sartu eta bi muturrak korden edo grapen bidez itxi.

**6)** Ura sutan jarri, erdiko tenperaturan. Irakiten hasten denean odolosteak sartu. Berriro irakiten hastera doanean odolosteak atera. Oharra: Prozesu horrek 40-50 minutu irauten ditu. Garrantzitsua da ura apurka-apurka berotzea, bat-batean berotzen bada odolosteak egin gabe geratu daitezkeelako.







# Juan Jose Arto Rodriguez

ILE-APAINTZAILEA

## Nola aldatzen diren gauzak

Gogoratzen dut nolakoa zen mundua, nola jolasten genuen, nola hitz egiten genuen. B.A.Pen hitzak. Gure jaietako nire lehen oroitzapenak izan nintzen umearen begiradakoak dira: txupinazo aurretik ilusioz betea nengoen, prest nuen arropa estreinakoz janzteko; baita zapia lepotik zintzilikatzeko ere. Kalean ekintza ugari zeuden txikientzako: mota guztietako jolasak herriko plazan edo zezenplazan, normalean.

60ko hamarkadan berdina zen: potinak hautsi behar ziren (jostailuz edo diruz beteak batzuetan, eta urez besteetan). Baziren jolas gehiago ere: zaku karrerak, ipuin txapelketa etab. Baita buruhandiak, tonbola, barrakak ere.

60ko hamarkadaren amaieran beste gauza bat egiten hasi ziren: motokrosa, aukera osatzen zuena. Baina garrantzitsuena herrian zegoen jende kopuru handia zen, ia inork ez zuen alde egiten, oraindik ez ziren oporretara joaten. Laudio festak bizitzeko geratzen zen langileen herria zen 60-70eko hamarkadetan. Jai kuadrillen artean zeuden Arloteak, Rakatapla, Sar, Kiowas, Coyotes, Diablos Negros, Barbis... 70oko hamarkadan euskarazko izendun beste hainbeste talde gehitu ziren: Larrako Gazteak, Saguzarrak, Baldarrak, Haizeak, Ñorrala...

70eko hamarkadatik 80kora dena aldatu zen. Diktadorea hil zen. Zerbait gertatzen ari zela nabaritzen zen garai hartan, ilea hazten zitzaigun sorbaldatik harago -praktikoki guztiz debekatua zegoen ordura arte hori-,kanpai prakak... zer nolako itxura! Askotan zeuden borrokak, izan gure artean edo beste herrietakoekin. Arrañoko motokrosa edota Herriko plazako dantzak gailentzen ziren 70ko hamarkadaren amaieran festibalak hasi aurretik.

Horrela joan ginen herria gerturatzen kultura, jendartea eta politika uztartzen zituen oinarri ideologikoetara, 80ko hamarkadako festetan islada izan zuten moduan. Baita 1981eko "pantomima" urte hartan ere! Ezin ahaztu, halaber, 1983ko uholdeetan -festa bete-betean- zenbat busti ginen! kar, kar!

Betidanik herriko jaiak Udala kudeatu duen gobernu taldearen araberakoak izan dira, hein batean. Batez ere, aurrekontuak banatzerako orduan. Esate baterako, 1987tik 1991ra, Pablo Gorostiaga alkate zela kultur, kirol eta bestelako elkarteen esku utzi zuen antolaketa guztia. Horrek jaiak askoz herrikoiagoak izatea ekarri zuen; txosnetan goizaldeko seietan sokamuturra egiten zen, baita musika festibalak ere: 1984an, Eskorbutok, R.IPek, Cicactrizek eta La Polla Recordes jo zutenean bezala.

Gazteria alaia eta borrokalaria ginen: ez genuen gaupasa egun batez egiten (gutxienez bi), eta ondo ikusia zegoen hori. Jarduera asko zeuden, lokalek beti laguntzen zuten. Herri bazkariak zeuden, lehiaketa gastronomikoak, txirrindularitza lasterketak... Kuadrillek jolasak, ekintzak, txapelketak zein erdigunetik zirkuituak zituzten Goitiberak edo Kart-ak antolatzen zituzten.

Halaber, 90eko hamarkadaren amaieran (2.000 urtetik gertu) ikuskizunetan parte hartu zuen herriko jendeari erreferentzia egin nahi nioke, Pirulo Txoukoei. Izan ere, urte luzez eman zioten herriari animazio eta espektazioa. Egon izan naizen azken txupinazoetan Sanferminetatik eratorritako ohitura errotu genuen: auzokideei ur baldeak eskatzea txupinazo egunean, kaleak eta jendea freskatu eta girotzeko. 2000.urtetik aurrera aitortu behar dut ez dudala lehen bezala parte hartu jaietan, beste jende askok bezala oporrak hartu ditut eta. Hala ere, azken txanparako itzuli ohi naiz: berakatz, kuadrilla, baserritar, odoloste eta kofradia egunetarako. Dena den, iruditzen zait festa erortzen ari dela: denek kritikatzen dute hau edo beste.

"Garaiak aldatzen dira, drogak ere bai" (Transpotting). Hori nabaritzen da teknolgoia berriekin, Internetarekin, sare sozialekin... Ohiturak aldatzen ari dira eta jada ez gara tabernetan geratzen. Festak baino, badirudi postureoaren pasarela ematen duela guztiak. Pentsa, jai kuadrilla berrien izenak galdetu behar izan ditut, kalean ez direlako ikusten edo gehiegi nabarmentzen: Txilardiak, Intziriak, Ainubeak, Azkenak...

Lekukoa hartzera animatzeko aprobetxatuko dut: kaleak hartu eta zuena denaz gozatu, herriaz! Eta... ahalik eta zuku gehien atera jaiei!

Aurrera beti!

## KOFRADIAREN ETA ERROKETXUREN EGUNA

# 08.25
## IGANDEA

**11:00 Diana**
Herriko auzoetan zehar, Laudioko Gaiteroen eskutik. Horren ostean, kalejira herrigunean zehar

**11:00 Prozesioa**
San Rokeren irudia haren baselizara itzultzeko. Jarraian meza nagusia egingo da zelaian, eta baita Santa Luzia abesbatzaren zein Lankaietako Lagunen emanaldia ere

**11:00-14:00**
**Pintxo Gargantua**
Herriko Plazan

**11:00 Hasiberrientzako entzierroa**

**12:30 Entzierroa eta bigantxak**
16 urtetik gorakoentzat

**12:30 Animazioa**
Laudioko Gaiteroen eta Lankaietako Lagunen eskutik

**12:45 San Roke Musika Elkartearen kontzertua**
Aldai plazan

**14:30 San Roke Kofradiaren bazkaria**
Elizako arkupean

**17:00 Erraldoi eta buruhandien ibilaldia**
Lankaietako Lagunak txistularien eta Laudioko Gaiteroen laguntzaz

**18:30 Animazioa**
Laudioko Gaiteroen eskutik

**18:30 Kalejira**
San Roke Musika Elkartearekin

**19:00 Antzerkia**
**“CIA GALICIA”**
Lamuza parkeko Pergola espazio eszenikoan

**21:30 Kontzertua**
**IÑAKI PLAZA BAND**
Alberto Acero plazan edo Herriko Plazan



**23:30 Kalejira Roketxurekin**
Lamuza plazatik hasita eta Zumalakarregi etorbidean zehar, Sorginlarren taldearen buruhandien laguntzaz. Bukatzean, Roketxu erreko dute, festei amaiera emanez.
















Haitzulo barri

Jaietan gurekin dantzatu!

GAUERO
Dj -a

## 09.13 OSTIRALA

**18:00 Danborrada**
Ibilbidea Txosnagunean hasi eta amaituko da. Latiorro HLHI eta "Jesuri" Guraso Elkartearen laguntzaz

**19:00 Txupinazoa**
Lehenengo suziriarekin batera buruhandiak egongo dira Galtzagorri kultur elkartearen eta Sorginlarren Mitologia taldearen leskutik

**19:00 Kalejira**
Lankaietako lagunekin

**20:00 Pintxo poteoa**

**20:00 Umeentzako ikuskizuna "DJ KAKTUS: EUSKARAZ DANTZATU NAHI DUGU"**

**21:00 Kontzertuak**
**PLACTON**
**KAOTIKO**
**DISKODANTZA**



Saioa "Gauilunak"

## 09.14 LARUNBATA

**8:00 XI. Mendi martxa**
Izen ematea txosnagunean. Ohiko ibilbidea egingo da: Elorritxugane-Jesuri (Santa Marinan hornidura)

**11:00 Puzgarriak, umeentzako tailerrak eta jolasak**

**11:30 Pilota erakustaldia**
Latiorro eskolako frontoian

**12:00 Igel txapelketa**
Arantzar plazan

**12:00 Laudioko Musika Bandaren kalejira**

**14:30 Herri bazkaria**
Pagolar kalean. Txartelak salgai auzoko tabernetan
Bazkalostean (16:30etik aurrera) Herri Bingoa eta Olinpiadak egongo dira

**16:30 Mus txapelketa**

**21:00 Akelarre dantza taldearen erakustaldia**

**22:30 Kontzertuak**
**"JATORRIZ" ERROMERIA**
**ENKORE**
**DISKODANTZA**

## 09.15 IGANDEA

**8:00 Latiorroko XXX. Marmitako txapelketa**



**13:00 Kazolen aurkezpena**

**13:00 Euskal Dantzen erakustaldia**
Itxarkundia dantza taldearekin

**14:00 Zozketa eta sari banaketa**

**15:00 Marmitako bazkaria**

**19:00 Txokolate jana**

**20:00 Jai amaiera**



lateorroko
Jai batzordea
JAI HERRIKOIEN ALDE!
Lateorroko Jai Batzordea
@LatiorrokoJaiak
Lateorroko Jai Batzordea

IRAILAK 13
21.00 Placton + KAOTIKO + Dj
IRAILAK 14
21.30 Jatorriz erromeria + ENKORE+Dj
IRAILAK 15
08.00 XXX. Latiorroko marmitako txapelketa
KAOTIKO

# OROZKOKO jaiak

## ABUZTUAREN 30ETIK IRAILAREN 4RA




*Gora Orozko!*
*Gora sanantolinak!*

Orozkoko Udala



**PEDRO MARI INTXAURRAGA**
OROZKOKO ALKATEA

Aurten be, heldu dira sanantolinak, eguneroko errutina alde batera itzi eta kalera urten prestatu deuskuezan ekitaldiak alaitasunez gozetako hainbeste itxaron doguzan egunak. Eta baita be gaur egun herrian bizi ez diran Orozkoko seme-alabak beraien sustraiak dagozan lekura itzultzeko egunak.

Eskerrik asko ganerakoek ondo pasau ahal izateko lan egin daben pertsonei: jai egitaraua egiten hasi zan aurreko udalbatzari, eta baita be jai honeek posible egiteko lan egin daben udal langileei, gaur egungo zinegotziei eta talde, elkarte zein pertsona guztiei. Batez be Antolinzaleak Jai Batzordeko kide diran edo batzarretara joan diran pertsonei, honek arduratu baitira egitaraua antolatzeaz.

Udala osatzen dogun pertsona guztien izenean, zuen pertsona maiteekaz batera jai zoriontsuak igarotzea opa deutsuet, ondo pasetan urten eta ahalik eta gehien gozau daizuen animetan zaituet. Jaia, jakina danez, dibertsinoa eta alkarbizitza da, baina hospitalidadea, tolerantzia, errespetua eta gizalegea kaleko nortasun-ikurrak izan daitezala.

# Orozkoko jaien hasierako sakea, Atxulaur futbol taldearen esku

ATXULAUR FUTBOL TALDEA IZANGO DA OROZKOKO SANANTOLIN JAIETAKO PREGOILARIA. MENDE LAURDENA BETE DU AURTEN ELKARTEAK, ETA HARROBIA EZ EZIK SENDO DAGO TALDEA; BIGARREN MAILA ERREGIONALERA IGOTZEA LORTU BERRI BAITUTE.

Atxulaur K.E izango da Sanantolinetako pregoilaria. 25 urte bete ditu taldeak aurten, eta hori dela eta egin diete aitortza. “Oso pozik gaude, ez genuen espero. Egin dugun 25 urteko ibilbidea ospatzeko modu bat da, ohorerik handiena”, dio Roberto Santa Cruz Olivarrek. Pregoia ez ezik, taldearen liburua osatzen ari dira, “baten batek argazkiak edo materiala balu eskertuko genioke bidaltzea autxulaur.ke@gmail.com helbidera”.



Egun neska-mutil ugari dabiltza klubean, “esango nuke gaur egun 160 inguru direla”. Irailean hasiko den denboraldirako 8 talde dituzte osatuta dagoeneko, futbol eskolaz gain. Ospatzeko lorpen ugari izan dituzte aurten gainera, bigarren maila erregionalera igo baita Atxulaurreko talde nagusia, hirugarren mailan txartela lortuta. “Hurrengo urtean ere gogor borrokatuko dugu, jakina”, dio.

Oraindik ez dute pregoia prestatu. Hala ere, ordezkaritza zehaztu dute: Atxulaurreko 4 zuzendaritza batzordeetatik behintzat ordezkari bana igoko da udaletxeko balkoira. “Guztiok gara taldea; eta, noski, gure artean ez dauden baina lan handia egin duten pertsonak izango ditugu buruan. 25 urtetan pertsona asko pasa da klubetik. Ez da etorriko mundu guztia, baina asko bai. Sorpresaren bat emango dugu...Jaietan futbolaren eta kirolaren balore eta filosofia transmititu nahiko genuke”.

Ildo beretik, Sanantolinak oso dibertigarriak eta parte hartzaileak izatea espero dute, "mota guztietako biolentziarik gabeak".

LTS TALLERES
Driver
NEUMATICOS Y SERVICIOS
NEUMATIKOAK ETA ZERBITZUAK
MEKANIKA INTEGRALA – KAMIOIAK ETA AUTOAK
TORREZAR POL. IND. • OROZKO
TEL. 670 383 166 • ltstalleres@grupo-driver.com

bebidas Serrano
Jaietan ere, zuekin!

# Marmitakoa

## Alejandro Olabarria eta Josu Respaldiza

Euskal Herriko Marmitako Txapeldunak




## OSAGAIAK (12 lagunentzat):

**Saldarako:**

- 5 litro ur
- 2 porru
- Berakatz buru bat
- Perrexila eta gatza

**Marmitakorako:**

- 2 piper gorri
- 6 piper berde
- 2 kilo tipula gorri
- Kilo bat tipula txuri
- 3.5 kilo patata
- Dozena t'erdi piper txorizero
- Txakolin baso bat
- 2.5 kilo hegaluze

## PRESTAKETA:

**1)** Saltsarako txiki-txiki egin piper mota guztiak (gorriak, berdeak eta txorizeroak) eta tipula. Olioarekin zartaginean frijitu su geldoan; gutxi gorabehera ordu eta erdiz. Behin saltsa su gozotan eginda, puregailutik pasatu eta txakolin edalontzia gehitu.

**2)** Patatak zuritu eta kraskatu. Behin zatituta izanda, aurrez prestatutako saltsa lapikoan sartu, eta patatak 15 minutuz sueztitu.

**3)** Salda prestatu. Horretarako 5 litro ur egosten jarri eltze batean, arrain zuriarekin eta hegaluzearen buruarekin. Horrez gain, porrua, berakatz burua eta perrexila bota saldari.

**4)** Salda irakiten hastean gatz eskukada bat bota. 25 minutu igaro ostean, sua itzali eta eltzeko piezak kendu (arrain hezurrak barne). Alegia, ur-salda zaporeduna bereizi, patata eta saltsarekin dugun eltzeari batzeko.

**5)** Hegaluzea zatitu (pieza marroiak kenduta) eta 5 minutuz marmitako eltzean egosi (jan baino 15 minutu lehenago).

**6)** 10 bat minutuz pausatu marmitakoa sutik kanpo, hegaluzea berezko berotasunarekin kozinatu dadin.

**7)** Marmitakoak oliorik izango balu kendu.










# Sei eguneko jaia Orozkon, abuztutik irailera arteko trantzisioa egiteko



## 08.30 OSTIRALA

TXUPINAZO EGUNA

**12:00 Txosnagunearen irekiera**
Jarraian, mural margoketa, kale animazioa eta GZTxef lehiaketa

**14:30 Gazte bazkaria**
Ostean, bingo musikatua

**19:00 Txupinazoa, kanpai hotsak, buruhandiak eta kalejira**
Orozkoko trikitilariekin

**19:05 Pilota eta gomazko paleta partidak**
Plazako frontoian, Olgetan Euskal Pelota Kirol Elkartearen eskutik

**19:30 Goitibehera lasterketa**
Txosnagunean

**20:00 Sardina jana**
Txosnagunean, Supelaur Kultur Elkarteak antolatuta

**21:00 Kontzertua**
**THE ALL NIGHTERS**
Zubiaur plazan

**22:00 Kontzertuak**
**MUGALARI**
**SIROKA**

GENERALI
Aseguru perfektua bilatzea, inoiz ez da hain erreza izan!
Etorri eta galdetu!
Kotxea, Etxea, Inbertsioak, Bizitza Aurrezkiak, Komertzioa, Istripuak, Heriotza Asegurua....
**Aritz Amorrortu Etxebarria**
Agente esklusiboa
946 610 361 - 688 856 744
artitzamorrortu@generalimediadores.es
Gorbeia 6, behea Orozko (Bizkaia)


**DJ BULL**
Txosnagunean

**23:00 Musika emanaldia**
**DJ IZPI**
Zubiaur plazan

## 08.31
## LARUNBATA

ZAPATU MOREA

**9:00-10:00 II. Orozkoko Harana kaleko pintura lehiaketa**
Museoan, Udalak antolatuta

**10:00 Marmitako txapelketa**
Eskolako patio estalian, Orozkoko EAJren eskutik

**12:00 Emakume sortzaileen azoka**
Txosnagunean

**12:30 Triki-bertso kalejira**
Igor Elortza eta Andoni Egaña bertsolariekin eta Orozkoko trikitilariekin

**16:00 Mus txapelketa**
Batzokian, Orozkoko EAJren eskutik

**17:00 Futbol partidak**
Ibaiondo futbol zelaian

**19:00-22:00**
**Beldur Barik Gunea**
Zubiaur plazan

**19:30 Kalejira feminista**
Mamiki batukadarekin

**21:30 Ikuskizuna**
**4 EME**
Txosnagunean, jarraian ekitaldi feminista egongo da

**23:00 Irrintzi txapelketa**
Zubiaur plazan, Supelaur Kultur Elkartearen eskutik

**23:00 Kontzertua**
**FITOS Y EL FITIPALDI (Tributu taldea)**
Gorbeia kalean

**00:30 Kontzertuak**
**YOGURINHA BOROVA**
**LAS TEA PARTY DJ'S**
Txosnagunean



**01:00 Musika emanaldia**
**DJ MARKELIN**
Zubiaur plazan

## 09.01
## IGANDEA

JUBILATUEN EGUNA

**10:00 Kalejira**
"Beti Jai" fanfarrearekin

**11:00 Meza**
San Juan parrokian

**11:30 Herri kirolak**
Frontoian

**13:00 Dantzaldia**
Ubixeta taldearekin, Zubiaur plazan

**14:30 Jubilatuentzako bazkaria**
Eskolan

**18:30 Zekorketa**

**20:00 Mobilizazioa**
"Euskal preso, iheslari eta deportatu politikoak etxera" lemapean. Ondoren elkartasun argazkia egingo da #47akHerrian lemapean

**20:30 Erromeria**
**JOSELU ANAYAK**
Zubiaur plazan

**21:30 Elkartasun afaria eta kontzertu akustikoa**
**IKER LAUROBA**
Txosnagunean

## 09.02
## ASTELEHENA

SAN ANTOLIN EGUNA

**Egun osoa zehar Orozkorock jaialdiaren argazki erakusketa**
Txosnagunean

**10:00 Kalejira**
"Beti Jai" fanfarrearekin

**11:00 Meza**
San Antolin ermitan

**11:00 Garrafa lehiaketa**
Zubiaur plazan



# 09.03
## ASTEARTEA

**11:30 Eskupilota eta gomazko paleta partiduak**
Plazako frontoian, Olgetan Euskal Pelota Kirol Elkartearen eskutik



**18:00 Garagardo dastaketa**
Txosnagunean

**18:30 Zekorketa**
Salamankako Charro de Llén ganadutegiko bina zekor
Toreroak:
José Antonio Salas Pirela (Madril)
Clément Charles Faisant (Guadalajara)
Sobresalientea:
Andre Julian Barajas Garibay (Madril)

**20:30 Orozkorock**
I. Banden lehiaren finala
Txosnagunean



**20:30 Kontzertuak**
**ROCIO DURCALI TRIBUTUA**
**GORASARREA**
**MARIACHI IMPERIAL**
Zubiaur plazan

UMEEN EGUNA

**10:00 Pintura lehiaketa**
Zubiaur plazan



**11:00-14:00 Jolas parkeak**
Zubiaur eta Lehendakari Agirre plazetan

**12:00 Ur jolasak**
Kiroldegiko igerilekuetan

**14:00 Umeentzako bazkaria**
Eskolan

**15:00 Gynkana**
10-12 urte bitarteko umeentzat, eskolan

**15:00-17:00 Jolas parkea**
Zubiaur eta Lehendakari Agirre plazan

**17:00 Karaokea eta umeen irrintzi lehiaketa**
Zubiaur plazan, Agate Deuna abesbatzaren eskutik

**19:00 Mozorro lehiaketa**
Zezen plazan



**19:00 "Ezker pareta" finala**
Plazako frontoian, Kolometak antolatuta

**20:30 Haurrentzako DJ emanaldia**
**AZKEN DANTZA**
12 urtetik gorako umeentzat, Txoperan

**20:30 Musika emanaldia**
**DJ KAKTUS**
Zubiaur plazan




- Artisau-okindegi honen hirugarren belaunaldia.
- Maitasunez eskuz egindako ogi naturala
- Ore-amaz egina
- Gehigarri kimikorik gabe
- Harrizko errotako irin ekologikoak
- Hartzidura prozesu luzea
- Labeko harrian erreta

Kurtzegan, 3 · Orozko 94 661 00 68 / Zumalakarregi, 30 · Laudio 94 672 84 94
okindegiaizahnospanaderia@gmail.com panaderiaiza

# 09.04 ASTEAZKENA

BERAKATZ EGUNA

**10:00 Kalejira**
“Elutxa” txarangarekin

**12:00 Joko poteoa**
Adie Elkarteak antolatuta

**15:00 Herri bazkaria**
Frontoian egingo da. Aiaraldea Ekintzen Faktoriako elikadura burujabetzaren lan-ildoko kideek prestatuko dute otordua. Tokiko produktu agroekologikoak erabiliko dituzte horretarako

**17:00 Erromeria**
**AKERBELTZ**
Zubiaur plazan, 21:00etan hasiko da bigarren zatia

**19:00 Bigantxak**
Zezen plazan

**22:30 Musika emanaldia**
**DJ UXU&TATUN**
**eta dantza lehiaketa**
Txosnagunean

**23:00 Txokolatea**
Zubiaur plazan.

**00:00 Jaien amaiera**

# *Orozkoko sartagina*






## IBARRAKO JAIAK

### 08.14 ASTEAZKENA

**20:00 Txupinazoa**

**21:00 Txorizoa doan**

**22:00 Erromeria**
**ARIZGOITI TALDEA**

### 08.15 OSTEGUNA

ANDRA MARI

**11:00 Meza nagusia**

**12:30 Trikipoteoa**

**18:00 Mus Txapelketa**
**Mozorro gaua: "Mexico lindo!"**
Oharra: Ez da lehiaketa izango

**20:00 Saiheskia doan**

**21:00 Musika emanaldia**
**DJ KELMEN**

### 08.16 OSTIRALA

SAN ROKE
(UMEEN EGUNA)

**12:00 Paella lehiaketaren izen ematea**

**12:00 Meza nagusia**

**13:00 Puzgarriak eta jolasak**

**13:30 Trikipoteoa**

**14:30 Paellen aurkezpena**

**15:00 Herri bazkaria**

**16:30 Puzgarriak eta jolasak**

**18:30 Bitsa jaia**

**19:30 Txokolate jana**

**20:00 Arrufiaren zozketa**

**21:00 Jaien amaiera**

## GOIKIRIKO JAIAK

### 09.22 IGANDEA

**10:30 Jaien hasiera**
Musikarekin

**12:00 Meza nagusia**
Goikiri inguruko hildakoen alde

**13:25 Txartel zozketa**

**13:30 Euskal dantzak**

**13:30 Tortila eta paella txapelketaren aurkezpena**
Hainbat sari egongo dira bi txapelketetako lehen hiru irabazleentzat

**15:00 Erromeria**
Trikitiarekin

**16:30 Herri kirolak**
Haurrentzako eta gazteentzako

**17:30 Txokolatada**

**18:00 Irrintzi txapelketa**

## BERAZAKO SANMIGELAK

### 09.26 OSTEGUNA

**18:30 Lehen suziria**

### 09.27 OSTIRALA

**17:30 Birziklatu eta jolasteko tailerrak**

**18:30 Magia ikuskizuna eta txokolatea**

**21:00 PLACTONen kontzertua**

### 09.28 LARUNBATA

**14:30 Herri bazkaria**
Parte hartzeko beharrezkoa izango da irailaren 23a baino lehen izena ematea Itxina tabernan edo Zubiaur kafetegian. Bazkariaren ondoren bingoa eta musika talde baten kontzertua egongo dira

**17:30 XXIV. Mus Azkar Txapelketa**

**21:30 Kontzertua**
**JOSELU ANAYAK**

### 09.29 IGANDEA

MIKEL DEUNA

**11:00 XXIV. Paella Txapelketa**
Goiz guztian zehar kalejira egongo da soplagaitek giroturik

**11:00 Meza santua**
Ondoren dantzak egongo dira Ubixeta taldearen eskutik

**13:30 Paellen aurkezpena eta sari banaketa**
Ondoren zozketa, bazkaria, bingoa eta aulkien jokoa egongo dira

# ARTZINIEGAKO jaiak

ABUZTUAREN 30ETIK IRAILAREN 8RA



**JOSEBA VIVANCO RETES**
ARTZINIEGAKO ALKATEA




Jaietan ondo pasatzea bai ala bai da, baina jaietan ere EZ beti da EZ. Jaiak pertsona guztientzako dira, gogoratu ezazu Arteko Landako Herri Bazkarian edo Kuadrillen Afarian ondo pasatzen duzunean. Gogoratu kozinatzea, gauzak jasotzea edo gau osoa haurrak zaintzen ematea-hein batean, zaintza lana- guztion lana dela; eta jaietan ere bai ala bai guztiok gozatzeko lanak banatu behar direla. Pentsatu ez ezik egiten badugu, seguru guztiok ondo pasatzen dugula. Ondo pasatu alkohola, ordua, parranda, emakume eta gizonen arteko erlazio desberdintzaile eta errespetugabeen aitzakia izan gabe. Elkarrenganako errespetuan oinarritutako jaiak.

Gure jaien aurretiko pare bat premisa dira, zeren egitarauaz gain jaien osagaiak norberak jartzen ditu - nire esker onena antolatzaile batzordeari emandako aurrerapausoagatik-.

Ondo pasatzeko gogoak norbanakoan daude bai ala bai. Txupinazotik, jaien amaierako trakara. Parte hartzeko dozenaka ekintza, horrelakoak izan direlako, eta egun ere badirelako Artziniegako jaiak: parte hartzaileak. Hori barik ez dira jaiak, ez gara ezer.

Balkoian elkar ikusiko gara, edo hobeto, kalejiran, erraldoiekin. Eta gogora ezazu, ondo pasatu bai ala bai; baina ez ahaztu jaietan ere EZ beti dela Ezetz.

***Artziniegako jaiak, herritarrak eta guztiontzat!***

Artziniega
Ayuntamiento

Artziniegako
Udala

# Artziniegako kuadrillak

## Peio Ureta




ASESORÍA SEGUROS INMOBILIARIA
ZERGA AHOLKULARITZA
ASEGURUAK
HIGIEZINEN AGENTZIA

ASESORÍA Y SEGUROS
GARAY
ANE MIREN BARADO ASPIZUA
MAPFRE

Garay etorbidea, 6
ARTZINIEGA (Araba)
691 86 65 64
asesoriaysegurosgaray@hotmail.com

## 08.30 OSTIRALA

**19:00 Eraso sexisten aurkako gunea**
Goiko Plazan

**19:15 Gure Arteko Andra Mariaren bederatzihurrenaren hasiera**
Santutegian

**20:30 Zurrakapote dastatzea**
Goiko Plazan



**21:00 Pregoia eta txupinazoa**

**21:30 Kalejira**
Herrian zehar

**23:00 Kontzertua**

**1:00 Erromeria**
**ZIRKINIK BEZ**

**1:30 Kulero eta gantzontzilo lasterketa**

## 08.31 LARUNBATA

**12:00 XIII. Pintxo Lehiaketa**
Goiko Plazan

**12:00-13:30 Eleiz museoa ikusteko aukera, dohainik**

**14:30 Herri bazkaria**
Frontoian

**18:00 Igel txapelketa**

**19:30 XVII. Bonbona eta XIII. Garrafoi lasterketa mundiala**
Goienkalen



**20:30 Kontzertua**
**MUGAN**
Goiko plazan

**22:00 IX. Playback lehiaketa**

**00:00 Kontzertuak**
**ROCK FIVE DIRECTION**
**DJ ROSA MARI**

## 09.01 IGANDEA

**11:00 Meza**

**11:45 XLI. Andra Mariaren Ohorezko enkatea**

**13:30 Tabernaz taberna lasterketa**
Barrenkalen

**18:00 Iturritik iturrira XII. Kronoeskalada**

**21:00 Baratxuri zopa**
Artekalen

## 09.03 ASTEARTEA

GAZTEEN EGUNA

**14:30 Bazkaria**
Goiko Plazan

**16:30 Jolasak**

**21:00 "La pequeña Suiza" filmaren proiekzioa**
Kalean proiektatuko dute Kepa Sojo zinemagile laudioarrak Artziniegan eta eskualdeko beste hainbat txokotan grabatutako pelikula

Visual 2018
Jai zoriontsuak!
1929 urtetik
LA ENCINA
RESTAURANTE
Astelehenetik ostiralera
EGUNEKO MENUAK
Taldeentzako, ospakizunentzako...
MENU BEREZIAK
GARAY HIRIBIDEA, 4
01474 · ARTZINIEGA (ARABA)
ERRESERBATZEAK
945 39 60 40 / 945 39 62 55

BAIMENDUN INSTALATZAILEA
Iturgintza - Berogailua - Gasa - Aire girotua
CASTRO
David Castro
ITURGINTZA INSTALATZAILEA
INSTALAZIO TERMIKOAK JARTZEA ETA HORIEN MANTENUA
GAS IG-B INSTALATZAILEA
Elexondo 24, Amurrio (Araba) · kaxyus@hotmail.com
676 02 33 93 - 685 26 69 31
www.fontaneriacastro.com

# 09.04 ASTEAZKENA

UMEEN EGUNA

**11:30 Jolas parkea**
Frontoian

**14:30 Bazkaria**
Arteko landan

**16:00 Jolas parkea**

# 09.05 OSTEGUNA

NAGUSIEN EGUNA

**14:30 Bazkaria**
Frontoian

**18:00 Musika emanaldia**

# 09.06 OSTIRALA

**21:00 Koadrilen afaria**
Barrenkalen

**23:00 Kontzertuak: "Villa de Artziniega" maketa lehiaketaren txapelduna, beste talde bat eta Akerbeltz**

# 09.07 LARUNBATA

**14:00 Herri bazkaria**
Arteko Landan

**16:00 Bertso saioa**
Arteko Landan

**19:00 Herriko Salbea**
Arteko Gure Amaren ohorez, Santutegian

**19:30 Arteko Landatik jaitsiera**
"El Despiste" fanfarriarekin



**21:00 Eskupilota partidak**
Frontoian

**23:00 Kontzertua**

**1:00 Musika emanaldia**
**DJ TARANTISTAK**




# 09.08 IGANDEA

**9:00 Marmitako eta patata tortilla txapelketa**
Goiko Plazan



**11:00 Bizikleta lasterketa: XXVIII. Arteko Gure Ama saria**

**12:00 Meza**
Kuadrilla eta elkarteen lore eskaintzarekin batera. Meza ondoren euskal dantzak eta luntxa egongo dira

**17:30 Herri kirolak**
Frontoian

**18:00 Kuadrillen arteko herri kirolak**



**20:00 Erromeria Mikelekin**
Goiko Plazan

**20:00 Odoloste jana**
Goiko Plazan

**21:00 Kuadrillen arteko lehiaketaren sari banaketa**

**21:30 Jaien amaiera traka**








Josu Zaldibar











# Ahalik eta babes gehienarekin antolatu nahi dute Antzinako Azoka

IRAILAREN 14AN IZANGO DA ARTZINIEGAKO ANTZINAKO AZOKA. ALABAINA, "GOGOETA PARTE HARTZAILE ETA SERIOA" EGINGO DUTE UDAZKENEAN, UDALAK AURRERATU DUENEZ.


Josu Zaldibar







Aurtengo azoka aurrera atera behar dugu, ahalik eta atxikimendu gehien lortzen saiatuko gara", adierazi du Joseba Vivanco alkateak. Uztailean egin zuten bilera irekia, eta herritarren ekarpenak jaso zituzten bertan: "Lehenik eta behin, izandako harrera ona eskertu behar dugu, ordubete luzeko eztabaida aberasgarria izan baitzen. Sukalde lana egitea dagokigu orain, ahalik eta herritar gehienek parte hartu dezaten postuak jartzen, ekintzetan laguntzen, antzinako arropak janzten...".

**Ekarpenak egiteko deia**

Gobernuburuak udalaren konpromisoa azpimarratu du: "Udazkenetik aurrera gogoeta serio eta parte hartzailea egin beharko da, merkatuaren etorkizuna definitzeko". Izan ere, azken urteetan enpresa baten bidez antolatu dute jaia.

Ekarpenak egin nahi dituztenei ere luzatu diete mezua: "ideiak edo laguntza jasotzeko irekiak gaude, bidean geratu zirenak berriro anima daitezela". Zinegotzien kontaktuak zabaldu dituzte eurekin harremanetan jartzeko: unaigotxi@artziniegakoudala.eus eta zurinefrutos@artziniegakoudala.eus.

GUREKIN ERE EUSKARAZ!

KAMISETAK, ZAPIAK,
EDALONTZIAK, KAPELAK,
**SERIGRAFIA, BORDATUA,**
**BINILOA, INPRESIO DIGITALA...**

jaietarako
behar
duzun
guztia

Graf!k

Telleria 2, LAUDIO
**94 672 65 43**
**pro@grafiksarea.com**
www.grafiksarea.com

# MUGIKORRA BADUZU, TXARTELA DUZU

Berritzea aitzakia hauek ahaztea da: «ordaindu zuk, diru-zorroa etxean utzi baitut» eta «ezin dut dirurik atera, txartela ahaztu dut eta». Izan ere, LABORAL Kutxari esker, **mugikorrarekin ordaindu ahal izango duzu zauden lekuan zaudela eta dirua txartelik gabe atera ahal izango duzu gure edozein kutxazainetan.** Erraz, azkar eta seguru, txartelarekin bezalaxe.

**Deskargatu LK Pay* appa edo erabili Apple Pay****

Pay

**LK Pay**

**Geure burua berrasmatzea, oraindik hurbilago egoteko.**




LABORAL kutxa

**Bada beste modu bat**

*Android 4.4 edo hortik gorako bertsioa eta NFC teknologia duten gailuekin soilik erabil daiteke Mugikor bidezko Ordainketa.

**Apple Payk gailu hauek onartzen ditu: iPhone XS, iPhone XS Max, iPhone X, iPhone 8, iPhone 8 Plus, iPhone 7, iPhone 7 Plus, iPhone 6s, iPhone 6s Plus, iPhone 6, iPhone 6 Plus, iPhone SE, iPad (6. belaunaldia), iPad Pro, iPad (5. belaunaldia), iPad Air 2, iPad mini 4, iPad mini 3, Apple Watch Series 4, Apple Watch Series 3, Apple Watch Series 2, Apple Watch Series 1, Apple Watch (1. belaunaldia), Touch ID duten Mac modeloak eta 2012an edo geroago merkaturatutako Mac modeloak, baldin eta iPhonea edo Apple Watch gaitura badaude Apple Pay erabiltzeko. Face ID duen Apple Payk gailu hauek onartzen ditu: iPhone X eta ondorengoak.